



Ihabarko Eskribarena etxea zaharberitzeko Ganbara proiektua aukeratu du Arakilgo Udalak / 11

Altsasuko Auziko hiru auzipetuk ezarritako zigorra bete eta aske gelditu dira aste honetan / 10

'Mendiak Guztiontzat' ekimena antolatu dute, desgaitasunak dituztenak Koskobilo ezagut dezaten / 16

Oier Aguirre Lopez iturmendiarrak lehen mailako Osasuna Magna Xotan debutatu du / 18-19

Aixita Bertso Sariketaren laugarren edizioa izanen da maiatzaren 18an, Irurtzunen / 23

SINADURAK



RAF
ATXURI / 5



ANITZARTEAN
MANKOMUNITATEKO
ZERBITZUA / 5



JUANKAR
LOPEZ-
MUGARTZA / 22



"Gure proiektua sortu zen auto elektrikoan bateriak modu jasangarrian birziklatzeko gai izateko"

Virginia Echavarri Bravo, ikerlaria / 2-4

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

Mundu osoko gobernuak erregai fosilen erabilera mugatu nahi dutenez, ibilgailu elektrikoak kopurua azkar hazten ari da. Denborak aurrera egin ahala, litio-ioizko baterien hondakinak azkar ugartuko dira. Metalen berezko balioari eusten dijon birziklatzeko metodorik ez dago gaur egun. 2030etik aurrera Erresuma Batuk ziurtatu beharko du bateria berriek birziklatutako metalak dituztela Europako merkatuan saltzen jarraitzeko.

Ikerketa hori Birminghameko Unibertsitateak gidatutako ReLiB proiektuaren barruan dago, eta 18 milioi liberako aurrekontua du. Litio-ioizko bateriak berreskapatu eta birziklatzeko erronkei teknologia konponbideak emateko helburua du proiektuak. ReLiB proiektuaren barruan, Faraday Battery Challengek finantzaturako programa batean, Edinburgoko Unibertsitateko ikerketa taldeak metalen biobereizketa prozesu bat garatu du baterien "metalen zopa" batetik abiatuta.

Virginia Echavarrri Bravoren ikerketa lantaldea dozena bat kide inguruk osatzen dute gaur egun. Guztien buru Louise Horsfall da, irakaslea, Bioteknologia Iraunkorreko Katedraduna. Taldea hainbat proiektu lantzen ari da. Olaztiarra baterien proiektuan 2018tik ari da lanean. Egitasmo hori Erresuma Batuko beste unibertsitate eta enpresa batzuekin elkarlanean garatzen ari dira.

Zein testuingurutan sortu zen proiektua?

Erresuma Batuko ekonomiaren dako autogintza sektore garrantzitsua da. Horrekin batera, zero isuritara jotzeko politikak daude. Ondorioz erregai fosilak erabiltzen dituzten autoak erabiltzetik auto elektrikorako trantsizioa dago. Erresuma Batuko Gobernuak Faraday erakundearen bitartez auto elektrikoak baterien hainbat arlo ikertzeko proiektuak finantzatzen hasi zen. Ez soilik litiozkoak, bestelako osagai kimikoetakoak ere. Gu litio ioizko bateriak birziklatzeko proiektuaren barruan gaudela.



Virginia Echavarrri Bravo laborategian lanean. CHRIS CLOSE

"Bakterioek baterien metalak birziklatzen dituzte"

VIRGINIA ECHAVARRI BRAVO DOKTORATU ONDOKO IKERLARIA

Ibilgailu elektrikoetan gastatutako litiozko baterien metal baliotsuak eta kritikoak berreskurtzeko bakterioen erabilera ikertzen ari da Edinburgoko Unibertsitatean

Auto elektrikoekin zein aurreikuspen dituzte?

Erresuma Batuan 2016an zeuden 200 autoetatik bat zen elektrikoak. 2030erako hamabitik bat auto elektrikoak izatea espero dute, eta

2050erako hamarretik bederatzia. Baterien eskaera handitu egingen da etorkizunean, eta hazkunde horren zati handi bat mugikortasun elektrikoagatik izanen da. Harritzen duen datua: diesela

erregaia duen eta bateria elektrikoak duen bi autoen bizitza zikloaren azterketa eginez gero, petrolioa erretzen duenez, erabiltzerakoan dieselak gehiago kutsatzen du, CO2 isuriak dau-

delako, baina, auto elektriko bat fabrikatzeko diesel bat egiteko baino sei aldiz mineral gehiago behar dira.

Zein mineral erabiltzen dira auto baten bateria egiteko?

Ez da bakarrik litioa erabiltzen. Izan dezakete nikela, manganesoa, kobaltoa, aluminioa, kobrea eta burdin-fosfatoa. Bateriaren arabera elementu horien portzentajea desberdina izanen da. **Beraz, mineral horien eskaria handituko da.**

Trantsizio elektrikoak egiteko material horien eskaera dago. Horien artean dagoeneko kritikoak diren elementu batzuk daude, esaterako: kobaltoa, grafenoa eta litioa. Europar Bata-sunean manganesoa ere kritikotzat jo dute. Nikel ugari dagoela pentsatzen bada ere, bateriak egiteko nahikoa purutasuneko nikela ere ez da hain ugaria. Beraz, elementu kritikoaren eremuan sartzen gara.

Zeren arabera da elementu bat kritikoak?

Material kritikoak dira ekonomiatik eta horniketara katean egon daitezkeen arriskuengatik garrantzia handikotzat jotzen direnak. Europarendako elementu batzuk kritikoak dira, baina beste kontinente edo herrialde batzuetako baliteke ez izatea. Esaterako, kobaltoa. Guretzat zergatik da kritikoak? Erreserba handienak Kongoko Errepublikan daude eta ezegonkortasun ekonomikoa duen herrialde bat da. Gainera, mineral horiek ateratzeko praktikak ere kontuan hartu behar dira. Hor eztabaida asko zabal ditzakegu. Haien ekonomiaren parte da meatzaritza hori, dirua ateratzeko haien modua. Baina, aldi berean, kobaltoa kutsadurak hiltzen ditu. Kobaltoa erazteak eta prozesatzeak sortzen duen kutsadura inguruan bizi diren populazioen edo komunitateen osasunarendako arriskua da. Giza eskubideak ere urratzen ari dira.

Eta?

Kobalto gutxiago duten litiozko bateriak egiten saiatzen ari dira. Baina kobaltoa ez bada beste



www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



elementu batzuk izan daitezke. Lítioa ere material kritikoa da, birziklatzen zaila gainera. Auto elektrikoek bateriak modu jasangarrian birziklatzeko gai ez bagara, ez da erregai fosilen benetako alternatiba izanen. Gainera, gure proiektua sortu zen bateria horiek modu jasangarrian birziklatzeko gai izateko.

Nolakoak dira bateriak barrutik? Autoen bateriak hainbat mota-takoak izan daitezke: zilindro itxurakoa, prisma itxurakoa, sandwich baten modukoak, gutun azaltxoek moduak, hainbat tamainakoak. Modulutan daude eta, gainera, bateriaren barruan hainbat modutara antola daitezke zati horiek. Bateriak osatzen duten hainbat elementuren egitura mantentzeko itsasgarriak asko erabiltzen dira.

Birziklatzeko modukoak dira?

Ez daude erraz birziklatzeko diseinatuta. Gure laguntzaile batzuk horretan lan egiten ari dira: errazago birziklatzeko nola diseinatu. Gutxi zeudenez, orain arte ez da birziklatzeko arazorik izan. Eta birziklatzeko material horren zati handi bat ekoizpen katean sortutako hondarrak dira. Baina urteek aurrera egin ahala handitu egingen da. Espero denaren arabera, Erresuma Batuan birziklatu beharreko kopurua 28.000 tonatik 235.000era pasako da 2030etik 2040ra. Joera globala da.


Ugari sortuko da. Nola egin horren kudeaketa egokia?

Hasteko, arazo berria da; nola kudeatu behar zen zehazten zuen

"AUTO ELEKTRIKO BAT FABRIKATZEKO DIESEL BAT EGITEKO BAINO SEI ALDIZ MINERAL GEHIAGO BEHAR DIRA"

"AUTOEN BATERIAK BIRZIKLATZEKO GAI EZ BAGARA, EZ DA BENETAKO ALTERNATIBA IZANEN"

"BIRZIKLATZEAN ELEMENTUEN BALIOA EZ DELA GALTZEN ZIURTATU BEHAR DUGU"



Horsfall taldeko kideetako batzuk, tartean Virginia Echavarrí Bravo, ezkerretik bigarrena. CHRIS CLOSE

legerik ere ez zegoen. Zer hondakin mota da? Bateriak sukoiak dira. Newcastleko gure lankideak suhiltzaileekin batera lankidetzan aritu dira. Suhiltzaileek esaten zuten, "sua pizten da, itzaltzen duzu eta berriro pizten da". Auto elektrikoek ez dute sarritan su hartzen, ez da kezkatzeko moduko kontua, baina bai kontuan hartzekoa. Hondakinak pilatuta gordetzen dira eta bateriak meta handitan pilatuta baditugu, suaren aukera kontuan hartu beharrekoa da, arriskutsua izan daitekeelako.

Gehiago?

Bateriak balioitsuak diren elementu kritikoz beteta daude. Baina, aldi berean, oso toxikoak dira, esaterako, nikela edo kobaltoa.

Bateria mota ugari daudela esan duzu.

Hala da, eta birziklatzea estandarizatzea erronka bat da. Zeren birziklatzeko prozesuan elementuen balioa ez dela galtzen ziurtatu behar dugu. Duela gutxira arte balioko metalak (kobaltoa, nikel) zituzten bateriak askotik elementu horiek erauzteko piro-lisia erabiltzen zen. Baina piro-lisirako energia ugari behar da eta gas kutsatzaileak sortzen ditu. Eta prozesuan manganesoa, aluminioa eta beste desagertzen dira. Balio erantsi handiko metalak birziklatzeko erabiltzen zen piro-lisia litiozko bateriak birziklatzeko ezin izanen da erabili.

Orduan, zer?

Horretarako dago gure ReLiB proiektua. Helburua da teknologia garatzea eskala handian modu

jasangarrian birziklatzea lortzeko, lehenik, auto elektrikoek bateriak berrerabiltzea. Zeren %80ko gaitasunetik behera egiten dutenean, beste nonbait erabili daitezke, esaterako, eskorga elektriko batean. Eta behin bateriak horri zuku guztia ateratakoan, hura osatzen duten elementuak nola banatu aztertzea. Katodoa zuzenean birziklatzeko metodoa honetan datza: katodoko partikulak bere onera ekartzea erabat disolbatu gabe. Birminghamen eta Lesterren lankideak aztertzen ari dira bere onera ekarri eta berrerabili daitezken. Katodoko elementuek edo partikulek bere kimika egitura eta konposizioa galdu badute beharrezkoa izanen da metalak disolbatzea eta banatzea bateriako material berria lortzeko.

Haien laborategiaz

Zergatik parte hartzen duzue ReLiB proiektuan?

Litekeena da gure lantaldeak ikerketa ikuspegi desberdinena izatea. Baterien proiektuarekin hasi aurretik, gure laborategian bakterioekin lan egiten zen, zehazki, metalez kutsatutako ur eta hondakin bionerremediazioa ikertzen.

Zergatik erabili bioteknologia?

Lan egiten dugun bakterioek bere metal birziklatze funtzioa 20 eta 30 °C arteko tenperaturan egiten dute, ingurune urtsu batean egiten dute. Birziklatzeko beste metodo batzuk tenperatura handiagoan funtzionatzen dute eta, beraz, energia kontsu-

mo handiagoa behar dute eta, orokorrean, erabiltzen diren erreaktiboak toxikoak dira. Bakterioek "zopa" disolbatutako metalak birziklatzen dituzte, tamaina oso txikiako partikula solidotan eraldatuz, 100 nanometro edo txikiagoak. Pentsatu milimetro batean, zatitu hura milioi bat zatitan, zati horietako bakoitza nanometro bat da.

Biologiak sor ditzakeen nanopartikulak metodo kimikoekin sortutakoekin desberdinak dira, izan ere, mekanismo, baldintza edota molekula desberdinak erabiltzen baitira. Esaterako, gure laborategian aurkitu dugu bakterioekin sortutako paladio nanopartikulak katalizatzaile eraginkorrak direla metodo kimiko jakin batzuekin egindako paladio katalizatzaileak baino.

Zein da prozesua?

Bateriaren katodoa, katodo hautsa edo xehatutako bateriak disolbatu egiten dugu hainbat metal dituen halako "metal zopa" bat lortzeko. Bioerreaktorean bakterioak hazi arazten dugu, eta disolbatutako bateriatik heldu diren metalak gehitzen ditugu. Bakterioek bere lana egiten dute, "metal hau bai, beste hori ez" eta disolbatuta dauden metalak nanopartikula bihurtzen dituzte; hau da, metala disolbatuta egotetik solido izatera pasatzen da. Disolbatuta dauden metaletatik horrela bereizten ditugu metalak forma solidoan. Gaur egun, gehienez ere, 30 litroekin lan egiten dugu. **hurrengo orrian jarraituko du »**

Soslaia

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) agronomia ingeniariaritzaren ikasketak egin zituen. Karrerako azken ikasturtean Lurreko Zientzian ikerketa proiektu baterako beka jaso zuen. Bigarren beka batekin Txilen karrera akaberako proiektua egiteko aukera izan zuen, lurralde lotutako gaiekin hori ere. Edinburgon ingelesa ikasi zuen. Bueltan Gamesan eta Indar Electricen lan egin zuen. Zientzia eta ingurumenarekin lotutako lanera bueltatzeko harra zuen eta, arlo horretan aukeraren bat izateko, Edinburgora bueltatu eta han zerbait ikasteko apustua egin zuen. Izan ere, Erresuma Batuan lana opatzea errazagoa baita hango titulazioa izanez gero. Biodibertsitatea eta itsas bizitza/biologia masterra egin zuen Heriot-Watt Unibertsitatean. Ikastetxe berean, beka batekin, doktoretza egin zuen: gero eta produktu gehiagotan dauden zilarrezko nanopartikulek itsasoan, naturan, dauden bakterioengan duten efektua ikertu zuen. Doktoregoa bukatu berriro, 2015ean, Edinburgoko Unibertsitatean doktoratu ondorengo gisa lanean hasi zen bere nagusi Louise Horsfallekin.

Ez du lanpostu finkorik. Hasieran zortzi hilabete eta erdiko kontratuak izan zituen. Ondoren, sei hilabetekoa. Bateriekin hasi zenean hiru urteko kontratua izan zuen. Emaizten arabera finantzazioa jaso dute. Laborategian lanean jarraituz edo emaitzak lortu eta horiek erakutsi dutelako, eta finantzazioa eskatzen jarraitzen dutelako. Horretarako asko mugitu behar izan dute: konferentziak, tailerrak, ezagutzera eman zer egin dezaketen eta hori erakutsi. Beste urte baterako kontratua du. Eta aurrera egiteko mugitzen, borrokatzen, ari dira. Lankideekin pozik dago, elkarri asko laguntzen diote. Gainera, master edo doktoretza ikasleek lanak gainbegiratzen ditu. Klaserik ez du ematen, tutoretzaren bat bai. Horrela etorkizuneko ikertzaileak trebatzen laguntzen du.

« aurreko orrian hasi da

Hainbat baldintzatan eta zenbait bakterioekin, batzuk genetikoki eraldatuta, egiten ditugu esperimenduak, eta horrela aukeratzen goaz metal kontzentrazio handitan eta haien gaikako bereizketan biziraun dezaketenak. Biologia ingeniariak edo biologia sintetikoa erabilita aztertzen dugu bakterio horiek zergatik diren gai manganesoa selektiboki prezipitatzeko, edo nola diren gai kobaltoa edo nikela murrizteko eta nano partikulak sortzeko gai. Zer proteina, zer biomolekula dira horren arduradun? Behin hori ulertuta, ea posible dugun bakterioen gaitasun horiek esplotatzea. Horretarako genetika ingeniariak erabiltzen da: ea horrela bakterioak metalei erresistenteagoak egin ditzakegun, ea birziklatzen diren metal kopurua handitu dezakegun... Ikerketa horiek guztiak edukiontzi itxi baten barruan egiten ditugu. Bakterio bizirik ez dira ingurumenean askatzen, aurretik hiltzen dira eta hondakin biologikoak modu ziuurrean kudeatzen dira.

Laborategiko lankide bat biohidrometalurgia egiten ari da. Berak metal arraroak dituzten imanak jasotzen ditu. Aztertzen ari da metal arraro horiek gaika berreskuratzeko modurik ote dagoen. Beste erronka bat da metalak gaika disolbatzea haien birziklatzea errazteko. Sukaldari modukoak gara. Hasieran hainbat metal eta izozkailuan zeuden bakterioak eman zizkiguten. Eta probak egiten hasi ginen. Batzuetan inkubagailuko kultiboaren kolorea aldaketa hutsarekin badakizu zerbait gertatu dela. Ikerketa frustragarria, aspergarria izan daiteke, baina zerbait aurkitzen duzunean oso zիրraragarria da.

Lanaren adibideren bat.

Esaterako, katodoa azido sulfurikoan, edo beste azido batean, disolbatu eta berde gelditzen da nikela asko duelako. Bakterioetako bat sartu eta hark manganesoa bakarrik prezipitatu du. Manganeso hautsa lortzen dugu eta lankideak azertu eta osatera ematen di: manganeso karbonatoa eta manganeso oxidoa izaten da. Berak bateria txiki batean jarriko du purua edo finduta erositako karbonato edo oxidoa bezain erabilgarria den aztertzeke. Disolbatutako frakzioan litioa, kobaltoa eta nikela daude. Badugu beste bakterio bat nikela eta kobaltoa prezipitatu dituen eta litioa azkeneko frakzioan uzten du. Orain ikertzen ari gara litioa



Virginia Echavari Bravo, erdian sariarekin, Parisko 2050NOW La Maison 's global trends foroan. UTZITAKOA

Aitortza Parisen

Olaztiarra kide den lantaldeak Parisko 2050NOW La Maison 's global trends foroan parte hartu zuen. Antolakuntzak urteko 3.000 berrikuntzen analisia egin zuen eta hamar sailetan ikerketa lanik onenak aukeratu zituen. Echavarriren lantaldeak "bizitza birprogramatu" mailan jasangarritasunaren arloan egindako ikerketarik onenaren aitortza jaso zuen lehenik. Beste bederati mailatan ere sari bana banatu zuen antolakuntzak. Eta hamar ikerketa onenen artean onenaren saria, Top 10 Global Science and Technology Innovation Awards saria, bateriak birziklatzeko lanean ari den taldearendako izan zen.

duen gatzun hori naturako gatz lautaden alternatiba izan daitekeen. Zeren litioa prezipitatzeko kontzentrazio oso handia behar da, disolbagarritasun oso handia baitu. Horregatik, errazagoa da "metal zopatik" gainontzekoak bereizi eta litioa gelditzea.

Bakterioetatik metalak erraza bereizteko tresna bat jaso dugu maiztaren 6an, eta birziklatze prozesua hobetzeko. Bestetik, bereizketa errazago eta azkarragoa egiten aztertzen ari gara. Eskala txikian lan egitea erraz samar da. 30 litroko bioerreaktorearekin esperimentatzea nahiko neketsua da. Ikerketa buruak esan didanez, Eskoziako Gobernuak 300 litroko erreaktore bat finantzatzen ari da.

Laborategiko eskalarekin hasi eta handitzen ari zarete.

Bai, eta horretarako ere materiala prestatu behar da. Onena da proiektuko beste laborategiak ere beraien sistema zabaltzen ari direla.

300 litrorako jauzia, industriari jauzi egin aurreko pausoa izanen da?

Hala da. Esan digute 300 litrorekin funtzionatzen badu industria eskalan funtzionatuko duen frogara delako. Bestetik, ez ditugu kimika metodoak ordezkatu nahi, baizik eta metodo jasangarriagoak sortu elkarrekin edo elkar osatuz. Gure ustez, ohiko

metodoen alternatiba izan daiteke ikertzen ari garen hau, horrela gaur egungo birziklatze sistemaren jasangarritasuna hobetzeko.

Prozesuan erabiltzen dituzten bakterioak berrerrabil daitezke?

Bakterioen onena da oso azkar ugaltzen direla. Guk manganesoa bereizteko lortu dugu, baita kobaltoa eta nikela ere. Soluzio hori

"BALDINTZA UGARI ETA ZENBAIT BAKTERIOEKIN EGITEN DIRA ESPERIMENTUAK, AUKERATZEKO"

"BIOLOGIAK SOR DITZAKEEN NANOPARTIKULAK METODO KIMIKOEN DESBERDINAK DIRA"

"ESAN DIGUTE 300 LITROREKIN FUNTZIONATZEN BADU INDUSTRIA ESKALAN FUNTZIONATUKO DUELA"

berrerrabiltzen, bakterioak hazten eta baterietako materiala gehiago sartzen segi dezakegu? Hori ikertzen ari gara.

Ekoizpen eredu jasangarriagoa ekarriko du zuen lanak?

Hori esateko zurrak gara. Jasangarritasun analisia egiten ari gara (Life Cycle Assessment ingelesez) beste metodologia batzuekin alderatu ahal izateko eta, aldi berean, gure bioprozesuan hobetu daitezkeen puntuak, prozesuak edo eremuak identifikatzeko. Garatzen ari garen prozesua potentzialki jasangarriagoa izan daiteke. Baina, horretarako, materialen kontsumoen, energiaren eta isurien inbentarioak egin behar dira, eta haien eraginak aztertu. Aurretiazko emaitzek diote disolbatzaile bidezko erauzketa eta ioi truke likido bidezko ohiko metodoak baino ehun aldiz jasangarriagoa izan daitezkeela. **Baterien diseinuan eraginen du zuen lanak?**

ReLiB proiektuko gure lankideak diseinua hobetzeko lanean ari dira, modu jasangarriagoan birziklatu ahal izateko eta osagaien balioa galez dadin. Zirkulu ekonomia printzipioetako batzuek ezartzen dutenez, produktuak diseinatu behar dira gehiago iraun dezaten, konpontzeko eta birziklatzeko.

Zuen ikerketa beste gailuetako bateriak birziklatzeko baliagarria izan daiteke?

Erabat. Telefono mugikorretako, ordenagailuetako bateriek kobalto, nikel, litioa, manganesoa, aluminioa badute. Gure laborategiko beste kide batzuek elementu arraroekin lan egiten dute. Baterien metalak birziklatzeko egungo prozesuan bakterio erabiltzen ditugu, baina beste espezie batzuk ikertzen segitzen dugu. Eraldatzen ditugu ea metal berrietara egokitu ditzakegun. Biologiak hainbat metalekiko espezifikotasuna izan dezake. Metal jakin batzuekiko afinitatea izan dezaketen molekula, proteina, kapsula batzuk sortzeko gai gara? Hori ere lantzen ari gara, beste metalekiko egokitza penara.

Elkarlanik?

Gu ez gaude laborategian itxita. Konferentzietara joaten gara, beste talde batzuekin biltzen gara. Beste pertsona batzuekin etengabeko harremanetan gaude arazoaren inguruan hizketatzen, birziklatze premia handiena izanen duten metalen inguruan, edo kutsagarrienak diren metalen inguruan. Beharrezkoa da komunikatzea, besteengandik ikastea eta denak elkarlanean aritzea. Elkarlanik gabe zailagoa da, batzuetan ezinezkoa, ikerketa bat emankorra izatea.

Antzeko ikerketen berri baduzue?

Guk dakigula, litio ioizko baterietatik materialak gaika berreskuratzeko bioteknologia erabiltzen dugun bakarrak gara. Badakigu beste ikerketa talde batzuek bakterioak edo beste mikroorganismoak erabiliz "zopak" sortzen dituztela. Guk erakutsi dugu gure bioprozesua erabil dezakegula "zopa" horietatik metalak berreskuratzeko.

Elkarren berri izan eta elkar laguntzeko aukerak sortzen dira. Eta ondoren argitaratzen diren publikazioak askoz aberatsagoak dira. Ikuspegi desberdinek aberastu egiten dute ikerketa edo proiektu hori. Lana hobetzeko galdera kritikoak behar dituzu, ez dute suntsitzaileak izan beharrik. Hobe da galdera gogor horiek hasieran izatea, dena bide onetik doala uste duzunean baino. Gainera, baliabideak bateratzen baditugu errazagoa da, ikerketa garestia baita. Elkarlanik gabe ez dago ikerketarik. Ikerketak denbora eskatzen du. Askotan, zerbaitez gehiago dakizunean, orduan jabetzen zara gutxiago dakizula, eta galdera gehiago sortzen zaizkizu.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Gabarraren epopeia

Ulisesek Troian 10 urte eman ondoren, beste hamar behar izan zituen Itakara itzultzeko. Bada, 40 behar izan ditu gabarrak itzultzeko. Kontu bitxia eta zinez misteriosua da, bilbotar apoteosi bat iragartzeko sinbolo hau, halako zera vintage eta zaharkitua, hots, ontzi xume eta subalterno bat, berez mugitzen ez dena, bere baitan proletalgoa eta burgesia lotzen dituena, dirutza eta beharra, itsusia eta dotorezia elkartzen dituena.

The show goes on eta Bilbok *Belle Epoque*-ko elementu industrial gutxietsi eta zakar bat posmodernitatera ekarriz, espektakuluaren maila psikodeliko gorena lortu du, Ander Lipus eta La Fura dels Baus-en laguntzarik gabe.

Ikuskizun kosmiko honek, ordea, ez du munduaren amaiera ekarri, batzuek hala pentsatu genuen arren, eta aste batzuk igarota, unibertsoak lehengo lepotik jarraitzen du. Bada, honen harira,ekar dezadan hona Bernat Etxeparek 1545ean izkiriatu LVPn *Iudicio Generala* olerkiko profezia apokrifo hau:

"Trompetada minçaturen mundugucietaric/ hilac oro iayqui huna çuyen hobietaric/ beccatoreac bozcarioz jin zaytezte/ aberaxac nola pobriac eçen/ Irybar biserarequi etorriren da/ eta haren alde banatan/ Pitchitchi eta Telmo Çarra/ jarriren dyrade thornuyan/ eta heyen onduan Andramary Begoinaco eta Azcouna/ Arçalyus eta Francis Doctore tchit Deseocoa/ La Oxoa eta Maryxaya/ eta Tchopoc erranen deraue/ munduco jende eta elementu guçiei/ goaçen oro elgarrequi ene adichquidiac/bethi eta seculacoç ene glorian/ Dessir oro conplituric alegria handian/ Yguzquia egonenda çurigorritz orienten gueldiric..."

Hala ere, apokalipsi guztien ama ez da gauzatu (oraingoz). Hemen gaude eta poztutzen gara, hurrengo Armagedon-aren zain, hori bai Lipusek eta La Furak antolatua bada, hobeki.

HARA ZER DIEN

Mugak. Zein? Non? Norendako? Eta zuk... ba al duzu mugarik?

ANITZARTEAN SAKANAKO KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Ikusten ez dena da zeharkaezinena den muga. Sorteritik urrun bizi diren milaka gizakiek pairatzen duten salba ezineko oztupoa.

Migratzeko eta babeserako eskubidea, zinezko bide bihurtzen dira, askotan. Hori nahikoa ez, eta migratzailearen jatorriaren arabera, muga bera errazagoa edo zailagoa da. Inolako garrantzirik ez balu bezala, migratzeko arrazoiak, jatorria edozein delarik ere: gosetea, arrazoi ekonomikoak, kulturalak, bizitza salbatzea, esklabotza...

Helmugara iristeko eskatzen diren hainbat paper, baldintza... eta abarrek, ez dituzte geldiarazten migratzeko bide arriskutsuak. Gizakiekin

trafikatzan duten banda/ mafien sorrera indartzen baizik. Ezinbestekoa da sarbide legal eta seguruak ezartzea. Horrek modu irregularrean migratzea gutxituko luke.

Gaur egungo mugen politikek bere osotasunean zartatzen dute libreki mugitzeko eskubide unibertzala. Bai, atera litezke haien sorteritik, baina harrera hirira iristea ukatzen zaie segun eta nori. Horrek, gizaki asko kondenatzen ditu arrisku bizian dauden sorterrietan bizitzen jarraitzera.

Horrela uler liteke babes eskakizunen %70 baimentzea Hego Ameriketako pertsona migratuei; alderantziz, giza eskubideak urratzen diren Afrikako hainbat herrialdeetako gizaki

migratuei uko egiten zaie babeserako eskubide hori bera. Mugetatik hona sar daitezkeenak aukeratzeak, mafien gehitzea dakar, izorrotuta dauden taldeen kriminalizazioa areagotuz.

Eremu hurbilean, Irun helmuga, eta muga. Fisikoa, emozionala, begiradana, administratiboa, soziala, erreka bera...

Mugak hausteko omen daude. Premia larrian daudenak saiatuko dira mugak hausten eta gaintitzen.

Eta zuk, ba al duzu mugarik? Fisikoa, mentala, emozionala, agerikoa, ezkutukoa, arrazakeria, klasismoa, bazterkeria, etnozentrismoa....

Mugak hausteko badaude, zer egiten duzu zuk zure mugekin?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

Pelloren Oroimen bidetik, Palestinako presoekin

ANDER MUÑOZ ETA JOXE ALDASORO

ETXARRIKO SORTUREN IZENEAN

Pello Mariñelarena Imaz 1993. urteko maiatzaren 15ean hil zen Parisko espetxe batean, salbuespeneko espetxe politikak gaiztotu zion gaixotasun baten ondorioz. Berrogeita bost urte lehenago, beste maiatzaren 15 batean, Israelgo Estatu sionista

sortu zen, Palestinako Herriak "hondamendiaren eguna Nakba" izenez gogoratzen duen data, 700.000 palestinarren ihesa eragin zuelako. Bi efemeride horiek bat egiteak aukera egokia eskaintzen digute Euskal Herriaren eta Palestinaren arteko anaikidetzan sakontzeko. Eremu anitzetan egin dute bat Euskal Herriaren eta Palestinaren askatasunaren alde borrokatzen direnek, eta eremu horietako bat espetxeak izan dira.

Europa osoan denbora gehien preso daraman ekintzailea Georges Ibrahim Abdallah libanoarra da, Palestinaren alde borrokatzeagatik 1.984ko urrian atxilotu baitzuten. Orain hainbeste aipatzen den *Lawfare* politikaren ondorioz segitzen du preso. Bera bizi zen etxean pasaporte faltsuak eta armak aurkitu zituztelako atxilotu zuten, eta lau urteko espetxe zigorra ezarri. Zigorra betetzen ari zela,

bigarren auzi bat ireki zioten, froga faltsuak eta era guztietako trikimailuak erabili... bizitza osorako espetxe zigorra ezarri arte! Georges Abdallah Lannemezango espetxean dago preso, eta urte luzez Euskal preso politikoekin batera bizitu da, tartean Oihan Barandalla eta Jon Gurutz Maiza etxarriarekin. Elkartasun talde batek dokumental bat egin du Georges bizi bizitza kontatzeko:

Fedayin, la lucha de Georges Abdallah. Maiatzaren 15ean Etxarri Aranatzaren ikusteko aukera izango dugu, Oihan Barandallaren parte hartzearekin. Palestinako eta Euskal Herriko presoekin egoraz ere mintzatuko gara, Haimar Altunaren laguntzarekin. Datu bat bakarrik, urriaren 7tik hona, preso dauden palestinarren kopurua 5.300 izatetik 9.100 izatera pasa da, horietatik asko adin txikikoak.



www.guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

"EITBn behingoz euskara erdigunean egon dadila"

MITXEL ELORTZA EXEA ALDATU GIDOIKO KIDEA

Euskarazko ikus-entzunezko "zabal, duin, eguneratu eta erakargarria" osatzearen aldeko ekimenak Gasteizen mobilizatzaera deitu du maiatzaren 18an, 17:30ean

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Aldatu Gidoia ekimeneko talde sustatzaileko kideek, kanpainaren babesle diren eragileetako ordezkari eta kultura eta ikus-entzunezkoetako norbanakoekin batera, *Aldatu gidoia euskararen alde* kanpaina aurkeztu zuten Altsasun. Han izan ziren, besteak beste, honako eragileen ordezkariak: Euskalgintzaren Kontseilua, AEK, EHE, Ikastolen Elkarte, Eskola Publikoaren Aldeko Plataformak, LAB, ELA eta STEILAS sindikatueta ordezkariak, LANARTEA Euskararen Langile Profesionalen Elkarte, Euskal Aktoreen Batasuna, Bikoiztaile Euskaldunen Elkarte, Zinemak Euskaraz, Pantailak Euskaraz, (H)Itzartu EITB, Xaloe Telebista, Aiaraldea Ekintzen Faktoria eta GUAIXE FUNDAZIOA.

Bestalde, *change.org* webgurenean bidez sinadura bilketa hasi dute. Zazpi puntuko idatziak zehazten ditu eskaerak, denak ere, Eusko Jaurlaritzari kulturaren eta ikus-entzunezkoen politikak errotik aldatu eta euskara erdigunean jartzeko eskatzeko.

Zer da Aldatu Gidoia?

Irailean Gasteizen aurkeztu genduen ekimena da. Ikus-entzunezkoak eta EITB euskaldunaren aldeko ekimena da. Euskalgintzako, sindikatueta eta gizarteko hainbat talde elkartu gara EITBri eta Eusko Jaurlaritzari eskatzeko gidoia euskararen alde aldatzeko. EITB euskara sustatzeko sortu zen, eta hori da guk eskatzen duguna: behingoz euskara erdigunean egon dadila.

Ez dago?

Ez, inolaz ere ez. Nafarroan hori oso agerikoa da, ezta? Eusko Autonomia Erkidego zentrismoa dago, gero Nafarroa eta, akaso, Iparralde baino lehenago askotan Madril. Ez, ez euskara ezta Euskal Herria ere ez daude erdigunean.



Deialdiaren berri emateko prentsurrekoan eragileen ordezkariak izan ziren.

"HAUR, GAZTE ETA HELDUENDAKO ERAKARGARRIA DEN PROGRAMAZIOA BEHAR DUGU"

Sakanan ETB3 ez da ikusten?

Gainera hori da daukagun erronka handienetako bat: Euskal Herri guztian berrmatzea EITB entzun eta ikusi ahal izatea.

EITBn euskara erdigunean jartzeko, zer eskatzen duzue?

Hainbat aldarrikapen ditugu Eusko Jaurlaritzari eta EITBrendako. Batzuk zuzenean erreferentzia egiten diote EITBri. Hor helburu zehatzak ditugu, baina, funtsean da apustu irmoa egitea euskal bikoizketaren alde, euskal azpi idatzien alde eta, benetan, kalitatezko programazioa eskaintzea euskaraz. Horretarako, oso garrantzitsua da ardatza ETB 1 izatea, eta ez ETB 2, orain arte bezala. Horrekin batera, zinema programazioa duina izan dadila eta ez orain arte bezala, euskara hutsaren hurrengo dela. Horrekin batera, streaming plataformak. Primeran-i ongi etorria

eman genion. Baina orain erronka handiena heldu da: Primeran edukiz jostea eta kalitatezko edukia eskaintzea. Beraz, zentzu horretan, ez du balio 90. hamarkadan arrakasta izan zuten telesailak hor igotzea, eta kitto. Ez. Harago joan behar dugu; haur, gazte eta helduendako erakargarria den programazioa behar dugu. Euskaraz aisialdian, ikus-entzunezkoetan ere erreferente bat izan behar du.

Herritarrek ekimenarekin bat egiteko aukera dute?

Bai, mobilizazioa antolatuta dugu Gasteizko foru enparantzan maiatzaren 18an, 17:30ean. Euskal Herriko herritar orori parte hartzeko dei egiten diegu. Deialdiko prentsurrekoa Altsasun egitea ez da kasualitatea. Nahiz eta EITB Eusko Jaurlaritzak kontrolatzen duen, uste dugu EITBk eskaintza Euskal Herri osoari egin behar diola. Horregatik bildu gara Altsasun, Euskal Herriko erdialdean, Nafarroan, eskaera horiek egiteko: Nafarroa eta Ipar Euskal Herria ere aintzat har ditzatela. Beraz, animatu eta Gasteizera joan. Mobilizazio polita izanen da, mereziko du. Aldatu gidoia euskararen alde!



Erraldoia erakusketa gelatik kalera ateratzen, kalejirara.

Erraldoi konpartsaren 80 urteko ibilbidearen errepasoa

Iortia kultur guneak erakusketa hartu du domekara arte. Argazkiak, bideoak erraldoiak eta beste daude

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Urtetan haien "etxea" izandakora, Iortia kultur gunera, bueltatu dira Altsasuko erraldoiak. Izan ere, erakusketa gelan *Erraldoiak 80 urtez Altsasun* erakusketaren zati garrantzitsua dira figura erraldoiak. Miguel Angel Nuncio Gonzalez konpartsa kideak azaldu duenez, "jende pila etorri da". Edurne Gonzalez Somocurcio konpartsako kideak gaineratu duenez, "konpartsarekin haur eta helduak oso lotura handia dute. Aurrekoan gomazko momotxorro eta sorgina aurkeztu ziren, eta jendetza izan zen". Nunciok jakinarazi duenez, "goiz hartan panpina guztiak saldu zirela, baita herrian salgai zeudenak ere. Esaterako, lehenengoaren ia-ia arrastorik ez dago, argazki bakarra besterik ez dugu opatu. 1944koa da lehen konpartsa eta erraldoi bikotea zuen".

Nunciok argitu duenez, "argazki bilduma bat egin eta erakusteko gogoia genuen. Aurten konpartsaren 80. urteurrena zela kontuan hartu genuen". Horregatik, erakusketarako "geratzen diren erraldoi zaharrak atera ditugu, jendeak ikus ditzan. Gainera, argazki erakusketa prestatu dugu. Guk gaur egungo argazkiak ditugu, baina erakusketa egiteko material gehiago behar zen, eta konpartsako kide izandakoengana joan gara. Haiei eskerrak". Argazkiren batean ikus daitekeen haurretako bat gaur egun konpartsako kidea da. Konpartsari buruzko argazki edo informazioa dutenei haiekin

harremanetan jartzeko dei egin die Nunciok.

Konpartsan "jendea badago, baina jendea behar" dela jakinarazi du Gonzalezek, "erraldoi bat eramateak nekaten baitu. Geroz eta gehiago izan, denondako erosoago. Gogoa duenak, ez da gehiago behar, hurbildu dadila. Nik, esaterako, kalejira egiten dut bakarrik, ez dut dantzatzeko ez dudalako bueltak emateko indarrik. Hori ematen diot konpartsari, bakoitzak ahal duena. Pisua dute, baina gehiago oreka kontua da. Edozeinek ahal du". Nunciok zehaztu duenez, "erraldoi bakoitzeko hiru pertsona behar dira, bestela izugarri nekaten zara. Proba egin nahi duenak erakusketan erraldoi baten egitura bat du, soinean hartu eta proba egiteko jarri dugu".

Azken urteetan jubilatutako elkarre ondoko gimnasioan, egurrezko estalpe batean, gordetzen dituzte. Eta konpartsak han bertan entseatzeko du, "jarduera gutxiago izatean entseatzeko aukera gehiago ematen digu. Arazoa da goian dauden bi haberen artean entseatu behar dugula, bestela ez gara sartzen". Hala jakinarazi digu Gonzalezek.

Konpartsak bostaldi izan ditu: 1944an bikote batekin hasi zen. Ondoren, 1975era arte, bi erraldoi bikote izan ziren. 1975 eta 2019 arte beste bi bikote izan ziren. Momotxorroa eta sorgina, 1995etik 2022ra erabili ziren. Eta gaur egungo erraldoiak 2019an (kintoak) eta 2022an (sorgina eta momotxorroa) eginak dira.



Beleixe Irratiaren urteurrena

Beleixe Irratiak (FM 107,3) 25 urte bete zituela eta ospatzeko bazkaria antolatu zuen. Hartan lankideak, laguntzaileak eta entzuleak elkartu ziren. Garai bateko, egungo eta etorkizuneko kontuak hizpide izan zituzten. Bazkaldu ondoren, Joxe Aldasoro bakarriketariak postre eta opari gisa irribarrea utzi zien guztiei aurpegian.



Ardiak Binkuloko zuloko idoiak.

Urbasa-Andia natur parkean 29 sare eginen dituzte

Urbasa-Andia natur parkean esnetarako ardi aziendaren kudeaketari lotutako sareak edo artegiak eginen ditu gobernuak. Zehazki, 29 artzain txabolen aldamenean eginen dira. Sare horiekin artzainek ardiak jezteko lana erraztu nahi du gobernuak. Horretarako, kasu zehatz bakoitzerako itxiera bana diseinatu ditu. Aurrekontua 164.171,19 eurokoa (BEZik gabe) da.



SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

Ekonomia soziala sustatzeko

Horretarako hitzarmena sinatu dute Sakanako Garapen Agentziak (SGA), Arbizuko Udalak eta Olatukoop elkarteak hitzarmena sinatu dute. Horren bidez, azken elkarteak ibarrean Ekonomia Sozial Eraldatzailea ezagutarazteko lan egin du. SGAREN eta Olatukoopen arteko elkarlana 2019tik dago, eta elkarrekin hainbat ekimen egin dira.

MUNDUKO ARROZAK ALTSASUN

ARROCES DEL MUNDO EN ALTSASU

MAITZAK DOMINGO

19

IGANDEA DE MAYO

10.00 HASIERA / COMIENZO

IORTIA PLAZA

13.30 DASTAKETA / DEGUSTACIÓN

EGITARAU / PROGRAMACIÓN

Ongi-etorria - Bienvenida
 Gaiteroak - Gaiteros
 Altsasuko Dantza Eskola
 Txapa tailerrak - Taller de chapas
 Sukaldatzeko txokoa - Txoko de gastronomía
 Mural margoketa - Pintura mural

ESKERRIK ASKO!!

SUKALDATZEN COCINANDO: SHH, BHI, MAROKO, NIKARAGUA, IRRUMANIA, SIRIA, SENEGAL, ZELANDI, GURASO ELKARTEA ETA ALTSASUKO LAGUNAK

Antolatzen dute | Organizan: **Mank.**

Laguntzen du | Colabora:

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Elkarrekin Lanbide Heziketako ikasketen aldeko agerraldia egin zuten Aitor Larraza Carrerak, Sakanako Mankomunitateko eta Garapen Agentziako presidentek, Jose Julian Garziandia Pellejerok, Sakanako Enpresen Elkarteko lehendakariak, eta Ignazio Urbitarte Cabrera, Sakana Lanbide Heziketako institutuko zuzendariak. Larrazak "Sakanan bizi, ikasi eta lan ideala gauzatzen lagunduko duten estrategien alde" egin zuen. SGAko buruak ibarrean industriak eta sortzen dituen lanpostuek duten garrantzia nabarmendu zituen: "lanpostu finkoak eta batz bestekoa baino altuagoak diren soldata eskaintzen ditu". Gaineratu zuenez, "lanpostu sorrera handien eta langileria falta aurreikuspenen aurrean, Lanbide Heziketa dual eta intentsiboa estrategikoa da". Haren defentsa egin zuen, SEE-rekin batera. Aldi berean, gogoan izan zuen ikasketetan dagoen genero arrakala. Lanbide Heziketan Iruñerriaren eta Nafarroako gainontzeko eskualdeen artean dagoen desoreka ere aipatu zuen Larrazak.

Sakana Lanbide Heziketako ikasketa eskaintzaren heldu den ikasturteko berritasuna robotika eta automatismoen goi gradua da. Ikasketa horrekin industriarekin zerikusia duten ikasketen eskaintza zabaldu du ikastetxeak, bost dira guztira. "Eskaintza horrekin enpresetan premia handien dagoen lanpostuetarako trebatzen ditu ikasleak". Ibarreko hamaika enpresek babesia azaldu ondoren ezarri da ikasketa hori. Enpresa babesle horiek dira: Aldakin, Electricidad Ramos, Eseki, Hydro, Iberica Suspensiones, Industrial Barranquesa, Industrias Laneko, Lacunza Kalor Group, Magotteaux, Irura eta Sakana kooperatiba.

Ikasketa duala

Ikasketak egitearekin batera ikasleak enpresetan praktikak egiteko aukera eskaintzen aintzindaria izan zen Sakana Lanbide Heziketa institutua. Gaur egun ikasketa Dualak, hiru gradutan eskainiko dira eta horietatik azken biak intentsiboak dira: mekanika fabrikazio ekoizpeneko goi gradua, soldadura eta galdaragintza gradu ertaina, eta robotika eta automatismoen goi gradua. Guztien artean prestakuntza dual inten-



Sakanako Garapen Agentziako, Sakanako Enpresen Elkarteko eta institutuko ordezkarien agerraldia. SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

Lanbide Heziketa, "lanerako bermea"

Izena emateko epea gaur despedituko da. Lanbide Heziketa institutuak heldu den ikasturtean robotika eta automatismoen goi gradua ere eskainiko du. Ikastetxea handitu, garraioa hobetu eta euskarazko eskaintza zabaltzeko eskaera egin dute

tsiboko 60 plaza eskainiko dira. Garziandiak gaztigatu zuenez, "Altsasukoa eskaintza dibertsifikatuena izanen duen Nafarroako ikastetxea izanen da". Aldi berean, ikasketa mota horrekin ibarreko enpresek duten "inplikazioa eta konpromisoa" nabarmendu zituen.

Ikasleek enpresetan 700 eta 1.000 praktika ordu artean egin dituzte ikasturtean zehar eta enpresen ikasturteko 3.000 eurora arteko bekak ematen dituzte.

Handitzea, garraioa eta euskara

SGA, SEE eta ikastetxearekin elkarrekin, Sakana Lanbide Heziketa institutua sustatzeko hainbat ekimen garatzen ari dira. Ikastetxea txiki gelditu da. Ikasketa eskaintza handitzearekin batera, zazpi urtetan ikasle kopurua bikoiztu eta gaur egun 216 ikasle ari dira Lanbide Heziketa ikasten. Ikas-

le hazkundearen alde txarra da ikasketa berriak arratsaldean eman direla, tokirik ez baitago bestela. Urbitartek nabarmendu zuenez, "Lanbide Heziketa enpleguaren bermea da. Ikasten duten gehienak lan mundura sartzen dira. Industria arloko gradu ertaineko ikasketak egin dituzten guztiak lanean daude".

Ikastetxea txiki gelditu da. Horregatik, enpresarien ordezkariak Carlos Gimeno Gurpegi Hezkuntza kontseilariari egingako proposamenaren berri eman zion: "jar dadila Altsasuko Udalarekin harremanetan, institutuaren aldamenean dagoen pabiloia, okindegia zena, erosi eta, horrela, etorkizunean ikastetxea handitu ahal izateko".

Institutuan ikasten duten 216 ikasleetatik 43 Iruñerritik etortzen dira. "Nahi eta nahiez autoz etorri behar dute, garraio publiko egokirik ez dagoelako.

Iruñetik autobusa 06:00etan abiatzen da eta 07:00etan Altsasura iritsi. Baina klaseak 08:10ean hasten dira", azaldu zuen Urbitartek. Agerraldia baliatu zuen Altsasuko Udalarari eskerrak emateko ikastetxe aldamenean aparkalekua egiteagatik.

Garziandiak, bestalde, azaldu zuen Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan euskarazko ikasketak nagusi zirela, baina ez Lanbide Heziketan. Horregatik, "parekatzeko, industria graduatan euskarazko ikasketa gehiago izatea" aldarrikatu zuen.

Ekonomia aurreikuspenak

SEEk buruak azaldu zuenez, aurten eta heldu den urtean Sakanan 815 lanpostu sortzeko aurreikuspena dute. "Haien %80 Lanbide Heziketako prestakuntza edo titulazioa behar du", azaldu zuen Garziandiak. Kopuru horretan Volvoren autobusak egiteko Sunsundegui

Ikasketa eskaintza

Oinarrizko Lanbide Heziketa

- Merkataritza zerbitzuak.

Lanbide Heziketa berezia

- Merkataritzako Zerbitzu Orokorretako laguntzailea (elebitan).

Erdi mailako zikloak

- Mantentze lan elektromekanikoa.
- Soldadura eta galdaragintza (ikasketa duala).
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza (euskaraz).
- Mikroinformatika sistemak eta sareak (ikasketa duala, euskaraz).

Goi mailako zikloak

- Industria Mekanika.
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa (ikasketa duala).
- Haur Hezkuntza (euskaraz).
- Automatizazioa eta industria robotika.

Araubide bereziko kirol ikasketak

- Mendi ertaineko teknikaria.
- Eskalada teknikaria.

Ziurtagiriak

- Lanean ari diren langileak titulazioa lortzeko profesio ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

Gaitasun kreditazioa

- Lan esperientzia eta arautu gabeko trebakuntzaren bidez eskuratutako gaitasunak ofizialki aitortzeko aukera.

kontratatzeko aurreikusten dituen langileak daude. Garziandiak gaztigatu zuenez, "enplegu horiek sortzeko epeak luzatu daitezke automozio eta haize erroten sektore garrantzitsuetan arazoak dituztelako, azken hori batez ere".



Aizkolariak lanean eta ikusleak plazan jarritako karpan. ARTXIBOA

Estalpe finkorik ez festetarako

Dirulaguntza eskaerari ez diote oraindik erantzunik eman, beraz, aurrekoetan bezala karpa jarriko du udalak. Liburuzaina kontratatzeke plegua prest du eta bi langabe kontratatzeke deialdia egin berri du. Igerilekuan hainbat inbertsio aurreikusi ditu

Alfredo Alvaro Igoa LAKUNTZA
Lakuntzako Udalak aurten 1.319.604 euroko sarrerak eta 1.291.419 euroko gastuak izanen ditu. Joan zen urtekoarekin alderatuz ez dago aldaketa handirik. Herri galdeketa bidez lakuntzarrek plazan estalpe finko bat jartzea erabaki zuten. Udalak lan hori finantzatzeko dirulaguntza eskatu du, baina ez du erantzunik jaso. Beraz, aurreko urteetan bezala, aurten ere udako festetan plazan jarri eta kentzen den karpa erabiliko du udalak. Hala jakinarazi du Oihane Uribeetxebarria Garmendia alkateak.

Ebazpenaren zain, laguntza jasoz gero, alkateak jakinarazi du proiektua ordaintzeko 5.250 euro daudela aurrekontuan. "Ea heldu den urteko Sansaastin festetarako iristen garen", argitu du Uribeetxebarria. Diru

laguntza jasoz gero, eraikuntzaren kostua diruzaintzako gerkina eta dirulaguntzarekin ordainduko du udalak. Gainera, agorrileko festetan eszenatokiaren ingurua babesteko, eta eraikiko den estalpe finkoaren osagarri bezala, jarri eta kendu egingo den estalpea izan nahi du udalak (8.000 euro). "Baina festetarako estalpe finkorik ez dugunez izanen, erosketa atzeratu egingen dugu", argitu du.

Liburutegia
Udalak aurten zerbitzu berri bat martxan jarriko du atzera

ALDE ZAHARREKO ERAIKINETAKO TEILATUETAN EGUZKI PLAKAK JARTZEKO AUKERA IZANEN DA

ere: liburutegia. Irailean zabalduko ditu ateak udaletxeko ganboikoan, 16:30etik 20:30era (udan, goizez). Udalak dagoeneko onartu du liburuzaina kontratatzeke deialdia eta *lakuntza.eus* webgunean kontsulta daite-

ke. Oposizio lehiaketan parte hartu nahi duenak bere eskabidea udaletxean maiatzaren 23ra arte aurkez dezake. Oposizioa despedituta eta langilea lanean dela, udalaren asmoa da Nafarroako Liburutegi Sarearekin hitzarmena sinatzea. Horrek katalogoa berritzeko dirulaguntza eta sareak eskaintzen dituen hainbat zerbitzu ere jasotzeko aukera emanen dio udalari. Aurrekontuetan liburuzainaren soldata eta ekipamendua osatzeko 3.000 euroko partida onartu du udalak.

Bestetik, alkateak jakinarazi du udalak bi langabe kontratatuko dituela urte erdirako. Kontratatuko dituzten bi pertsona horiek lorezaintza eta berdeguneen mantentze lanak egingen dituzte. Kontratu urte erdirako izanen da. Deialdian interesa duten langabeek Nafar Lansarek Altsasun duen enplegu bulegoan eman beharko dute izena maiatzaren 10a baino lehen.

Igerilekua eta parkea

Lakuntzako Udalak igerilekuan lanak egingen ditu. Auzolanean aldagelak eta beste margotu zituzten lakuntzarrek apirilaren 27an. Baina udalak beste lan batzuk ere egin nahi ditu han, "bereziki legedira egokitzeko direnak", azaldu du alkateak. Horietarako 20.000 euro aurreikusi ditu udalak. Baita beste 3.000 euro igerilekuko sukalderrako altzariak erosteko ere.

Parkea Martxan dinamika parkea nolako izanen den "amesten" ari da apirila eta maiatzean. Garagarrilean parkearen diseinuaren inguruan erabaki ondoren, auzolanean gauzatzeko pausoak emanen dituzte. Parke eraberrituan elementu nabarmenetako bat udalak joan zen

urtean erositako tirolina izanen da (6.766,32 euro).

Udalak aurreikusitako beste lan bat kultur etxeko tabernan egingen da, Gure Nahia jubilatutako elkartearen egoitzan, terrazara irteera emango dun ate berri bat egingen du (6.000 euro). Bestalde, hilaren 18tik Lakuntzako udaletxearen fatxadaren informazioa ematen duen pantaila digitala dago. Azkenik, udalak udaletxeko bulegorako fotokopiagailu berria erosi du (3.500 euro).

Bi eraikin

Lakuntzako Udalak toki erakunde batena baino gehiagorena diren bi eraikinen ardura du. Batetik, Aralarko Elkartearen guardetxea. "Lanak, ziurrenik, maiatzean despedituko dituzte". Baita, besteak beste Sakanako Mankomunitateko egoitza hartzen duen eraikina ere, hainbat udal eta kontzejuna dena. Amiantoa duen uralitzako teitlatua du, eta hura kentzeko lanak aurten hasiko dira. Horretarako, "aurrekontua aldaketa egin dugu. Gogoratu lan horiek Nafarroako Gobernuaren aurrekontuari aurkeztutako emendekin baten bidez finantzatzen direla". Lanen aurrekontua 212.000 eurokoa da.

Bestalde, Lakuntzako Udalak hirigintza arautzen duen ordenantza aldaketa egin du eta, ondorioz, herriko Alde Zaharreko eraikinetako teilatuetan eguzki plakak jartzeko aukera izanen da. Aldi berean, eremu horretako eraikinen irisgarritasuna hobetzeko helburuz, igogailuak jartzeko aukera izanen da ere. Izan ere, igogailuak jartzeko eraikinen altuera gaintzen da eta, hori baimentzeko, ordenantza salbuespen batzuk aurreikusi ditu udalak.

EGURDIAIN
sutarako egurra
608 57 03 57
etxea berotzeko ezinbestekoa

PORTUKO
Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Ebarrri Aranatz:
948 460 988

Anfasko langileak lan hitzarmenaren alde protestan

Soldata igoerak eta erosahalmena berreskuratzea eskatzen diote zuzendaritzari

SAKANA

ELA eta LAB sindikatuek Anfasko langileak grebara deitu dituzte hilaren 8an eta 11n. Enpresa batzordetik azaldu dutenez, "hitzarmena negoziatzen bi urte baino gehiago eman ondoren, zuzendaritzak proposamen bera egin du azken bi bileretan; ez da nahikoa". Gaineratu dutenez, "galdutako erosahalmena berreskuratzea da puntu kritikoa. Oinarrizko soldata da plantillaren sostengu nagusia, plusik ez dagoelako". Horregatik, "soldatek gora egitea eskatzen dugu, bizitza igotzen denaren arabera, plantilla urtez urte pobretu ez dadin". Azaldu dutenez, "lan baldintzak prekarioak dira, partzialtasun asko, asteburuetan lana, lan karga handiak eta erantzukizun handiarekin". Esan dutenez "2020tik 2023ra Anfasean diru sarreren bi heren gobernauk ordaindu ditu", eta haren erantzukizuna nabarmendu dute.

Aurten Ospa Eguna izanen dela iragarri dute

Joan den urteko etenaren ondoren, aurten agorrilaren 31n izanen da

ALTSASU

Errepresioaren kontrako Ospa! Mugimenduko kideek azaldu dutenez, "joan zen urtean Ospa! Egunik izan ez zen arren, mugimenduak ez du bere jarduna eten eta errepresioaren kontrako borrokaren premia berresten dugu. Izan ere, sistema kapitalistak dirauen bitartean burgesiak bere ordena mantentzeko ezinbesteko zaion tresna baita errepresioa".

Mugimenduko kideen iritziz, "errepresio horren isla poliziaren eskutik exekutatu diren langileen kontrako ekintzak ditugu: etxe gabetzeak, kontrolak, isunak, atxiloketak... Egunero irudi horiek ikustera behartua dago langile klasea eta egoerak bere horretan jarraitzen duen bitartean, errepresioa salatzen eta polizia gabea gizarte baten aldeko borrokan tinko jarraituko dugu". Egitarauaren berri aurrerago emanen dute.



Hirukotea askatzeko eskatuz egindako manifestazioa, preso urte bat zeramatenean. ARTXIBOA

Altsasuko auziko beste hiru zigor beteta

Espetxean gehien egon zen hirukoteak bete du zigorra: Jokinek eta Oihanek asteartean eta Adurrek gaur. Zortzi zigortuetatik bi gelditzen dira zigorra betetzeko. Biak ere kalean daude eta kontrol neurriak bete behar dituzte

ALTSASU

Auzitegiak jarritako zigorra bete dute Adurrek, Jokinek eta Oihanek. Atzeneko biak 2016ko azaroaren 14an atxilotu zituen Guardia Civilak. Adur, berriz, bere burua epaitegian aurkeztu eta azaroaren 16an espetxeratu zuten. Jokinek eta Oihanek 2.730 egun egin dituzte zigorpean eta Adurrek 2.732 egun. Hirurak izan ziren Altsasuko auziagatik preso denbora gehien egon zirenak, 1.326 egun. 2020ko garilaren 3an hirugarren gradua eman zieten, eta kartzelara ez bueltatzeko hainbat neurri bete behar izan dituzte. Preso egon zen bitartean Jokin Soto del Real, Estremera eta Zaballako espetxeetan izan zuten. Oihan, berriz, Soto del Real, Navalcarnero eta Zaballa. Eta, azkenik, Adur Soto del Real, Aranjuez, Iruñea eta Zaballa espetxeetan.

Eskaerak eta zigorrak

Fiskaltzak terrorismoko lau deliturengatik Jokinendako 50

urteko espetxe zigorra eskatu zuen. Oihanendako, terrorismoko lau delitu eta mehatxu terroristako delituagatik, 62 eta erdiko espetxe zigorra eta Adurrendako ere 50 urteko espetxe zigorra. Espainiako Auzitegi Nazionalak 2018ko garagarriaren 1ean emandako epaian 12 urteko espetxe zigorra ezarri zion Jokini, 13 urtekoa Oihani eta 12 urtekoa Adurri.

Auzitegi bereko Apelazio Epaitegiak 2019ko martxoaren 7an emandako epaiak berretsi zituen. Azkenik, egitateak aztertu ondoren, Espainiako Auzitegi Gorenak 2019ko lastailaren 9an eman zuten epaian zortzi urte eta erdiko espetxe zigorra ezarri zion Jokini, bederatzi urte eta erdiko

ALTSASU GURASOAK-EK ALTSASUKO AUZIAREN MEMORIA GUNEA HILAREN 17AN AURKEZTUKO DU

Oihani eta zortzi urte eta erdiko Adurri.

Biren faltan

Hirukotea aske dela, zigorra betetzea falta diren bakarrak Jonan eta Julen dira, 2025eko lastaillean beteko dute zigorra. Biak 2016ko azaroaren 16an atxilotu zituzten. 36 egun preso egon ondoren epaiketaren zain baldintzapean aske utzi zituzten. Zazpi urte eta erdiko espetxe zigorra jaso zuten, baldintzapeko askatasunean betetzen ari direna. Adinez nagusi ziren zortzi auzipetuen artean 50 urte eta zortzi hilabeteko espetxe zigorrak pilatu zituzten.

Adinez nagusi ziren zortzi auzipetuetan zigorra betetzen lehena Ainara izan zen. Ez zuten preso sartu, baina hainbat urte hainbat kontrol neurri bete behar izan zituen. Iñakik, berriz, 1.283 egun egin zituen zigorpean, haietatik 598 kartzelan preso. Aratzek, berriz, 2.028 egun pasa zituen zigorpean, horietatik 599 preso.

DUELA 25 URTE...



Universal zabalik

Ilargi eta Matraka izenak izan ondoren, Lakuntzako dantzalekuak Universal izena hartu zuen beretako. Maiatz hasieran zabaldu zituen ateak. Mustutze egunean erabat bete zen dantzalekua. 07:00etan zabaldu zituen ateak eta 18:00etan itxi zituen. Igandero zabaltzen zituen ateak eta horrek lakuntzarren artean hainbat iritzi sortu zituen. Batzuek ez zuten gogoko herrian hainbeste jende egotea, beste, berriz, ez zien axola.



Etxea zaharberritzeko proiektu lehiaketako epaimahaia aurkeztutako lanak aztertzen. UDALA

Eskribarenak badu proiektua

Proiektu irabazleak sei etxebizitza aurreikusten ditu etxean eta erabilera anitzeko hainbat espazio barruko aldean. Udala proiektuko erredaktoreekin biltzekoa da bien nahiak uztartu ahal izateko. Lanak heldu den urtean hasiko lirateke

Alfredo Alvaro Igoa IHABAR
Arakilgo Udalak Ihabarko Eskribarena etxea birgaitzeko proiektuen lehiaketara hamaazpi proiektu aurkeztu ziren. Arkitektoen kolegioko eta udaleko ordezkariak osatutako epaimahaia lehen saria (3.000 euro) *Ganbara* proiektuaren egileei ematea erabaki du. *Impluvium*-ek jaso du bigarren saria (2.000 euro) eta hirugarrena (1.000 euro), berriz, *Hego Bao* egitasmoaren sortzaileendako. Irabazleak errendimendu hobetze dokumentua, zaharberritze proiektua egin eta obrak zuzendu beharko ditu. Horien guztien truke, saria barne, 78.679,57 euro (BEZ barne) jasoko ditu.

Oihana Olaberria Jaka alkateak jakinarazi duenez, "hiru proiektu sarituen egileekin aurkezpena antolatuta nahi dugu, horretarako egileekin harremanetan jarri

gara". Olaberriak esan duenez, "oso-oso aberasgarria izan da prozesua. Ihabarko Kontzejua-ekin, arkitektoen kolegiorekin eta hainbat pertsonarekin lanean aritu gara. Gozatua izan da. Kolegiokoak prozesu guztiarekin liluratuta daude. Maila oso-oso altua izan dela esan dute".

Hurrengo pausoak

Alkateak azaldu duenez, "oraindik dena airean dago. Sei etxebizitza proposatu dituzte, hiru-na beheko eta lehen solairuan. Baina segur aski bost izanen dira, behean espazio garbi bat

EGILEEKIN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUKO KIDEEKIN BILERA EGINEN DU UDALAK

utzi nahi baitugu". Dena dela, sarituekin Eskribarena etxean bertan hilaren 16an elkartuko da udala "lehen pausoak emateko". Alkateak jakinarazi duenez, Etxebizitza Departamentutik ere joatekoak dira bilerara.

Topaketa horretan "hain proiektuaz eta udalaren nahiaz hitz eginen dugu. Hau da, biak uztartu beharko ditugu", azaldu du Olaberriak. Gaineratu duenez, "printzipioz behean bi eta goian hiru utzi nahiko genituzke. Baina ikusiko dugu zertan bukatzen den hau. Orain elkarrizketa hasiko dugu. Bestetik, etxeak egitura zahar eta berezia du eta ea zer uzten duen egiten eta zer moldaketa egin ditzakegun ere baloratu beharko da", zehaztu du alkateak. Hala ere, irabazi duen proiektuaren ideia eta xedea garatuko dituztela azpimarratu du Olaberriak.

Irabazleak duplexen ondoan erabilera anitzeko bitarteko espazioak aurreikusi ditu. Olaberriak esan duenez, "azken finean, etxebizitza kolaboratibo bat egin nahi dugu, beraz, ezinbestean komunak diren espazioak egon behar dira. Etxebizitza kolaboratiboaren funtsa da zaintzen inguruko espazioak eta elkarbanatzeko espazioak sortzea. Horrek, ezinbestean, proiektuan islatuta egon behar du".

Finantzaketa eta lege berria

Lanak egiteko finantziarioa kokan dutela aitortu du alkateak. Nafarroako Gobernuaren aurtengo aurrekontutik, EH Bilduren emendekin baten bidez, 300.000 euro onartu ziren proiekturako, baina Foru Administrazioiko diruzaintzak ordainketa geldiarazi zuen. Olaberriak azaldu duenez, "Etxebizitza Departamentuarekin adostuta, emendakina zabalik dugu eta urte akaberara arte hura diruz betetzeko aukera dago, eta hala behar du, jakina. Ea nola bukatzen den hau guztia!"

Alkateak lanekin heldu den urtean hasi nahiko luke. "Orain esku-hartze publikoko proiektua eginen dugu. Proiektuaren irabazleek eginen dute. Nafarroako Gobernuari aurkeztuko diogu, oniritzia jasotzeko. Horrekin proiektuak forma hartuta geldituko da". Lanek milioi bat euro inguruko aurrekontua dute.

Legea egiten

Etxebizitzetan zein biziko den zehazteko modua azken erabakia izanen dela aurreratu du alkateak. "Nasuvinsaren eta Etxebizitza Departamentuaren kudeaketarako laguntza izatea espero dugu. Printzipioz baldintzak jartzeko eskumena izan nahi genuke, eta arakildarrak bertan bizitzea lehenetsi nahi genuke". Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Kolaboratiboaren Legea prestatzen ari da eta lantalde horretan, gobernuak hainbat departamentuetako kideekin batera, parte hartzen ari dira Olaberria bera eta Uharteko alkate Txomin Uhartea Baleztena. Olaberriak azaldu duenez, "Bartzelonako erudutik abiatuta, eta Poloniako pintzelkada batzuk hartuta, legea Nafarroara ekartzen ari gara. Horrek ere gauzak nola egin markatuko digu, legeak etxebizitza kolaboratiboko ereduaren baldintzak zehaztuko baititu".

Sarituak



GANBARA

Eraikin barruan etxe bat eraikitzean oinarritzen da proposamena. Sei etxebizitza (hiruna solairu bakoitzean) eta "kale bat" aurreikusten ditu. Lehen solairukoak duplexak lirateke eta teilatu azpian erabilera komuneko espazioak izango lituzke. Baita beheko solairuan ere.



IMPLUVIUM

Proiektuak aurreikusi ditu bost etxebizitza, bakoitza bere garajearekin eta sukalde jar litekeen txokoa eta komuna publikoa beheko solairuan. Txokoa lorategiarekin lotuta legoke eta han igerilekua, jolas parkea, estalpea, baratza eta barbakoa leudeke.



HEGO BAO

Hiru solairutan banatutako bost etxebizitza aurreikusten ditu egitasmoak. Argia sartzeko hegoaldeko fatxadaren erdiko alde irekia izango luke eta balkoidun patio moduko bat sortuko litzateke bertan. Iparraldeko aldean, teilatuan, balkoi bat izango luke. Lorategia izango luke.

Guaixe fundazioaren irudi berria



guaixe
fundazioa

Giltzarria


Zergatik marka aldaketa?

Aurten bazkidetza kanpaina egitea aurreikusita genuen eta honen inguruan hitz egiteko biltzen hasi ginenean, kanpaina beraren irudiaren inguruan hausnarketa egiten hasi ginen. **Hausnarketa horretatik, gure markaren irudia berri-tzeko ideia sortu zen, Guaixe fundazioa osatzen dugun lantalde guztioi bateratasuna emateko helburuarekin.** Askotan jendeak ez daki Guaixe astekaria, irratia eta GK diseinu eta komunikazio zerbitzua beraren parte direnik ere eta hori ar-

gitzeko beharra ikusi genuen.

Behin irudi berria sortuko genuela erabakita, **GK diseinu zerbitzuan lanari ekin genion.** Prozesu honetan bi proposamen sortu ziren paraleloan eta hausnarketa baten ondoren gaur aurkezten dizuegu aukeratutakoa.

Hasieratik argi izan genuen bazkideak fundazioaren parte sentiarazi nahi genituela eta irudiak hori islatu behar zuela.



Abiapuntua

Sorkuntza prozesu horren abiapuntua kontzeptu zerrenda bat izan zen. Fundazioa deskribatzen duten eta deskribatzea nahi genuen hitz multzo batekin hasi ginen, bertatik hitz gakoak atera eta, ondoren, haiei forma eman ahal izateko.

Aukeratutako proposameneko hitz gako nagusia giltzarria da; bai zentzu figuratibo eta baita literalean ere.

Zentzu literalari erreparatzen badiogu, arkitekturaren giltzarria arkuetan erabiltzen den erdialdeko dobela da. Arkua osatzen duten gainerako harriak baino neurri handiagokoa dena. Pieza horien helburua arku forma sostengatzea eta orekatzea da. Hau da, arkua ez erortzeko beharrezko pieza da.

Zentzu figuratiboan ere, beharrezkoa den elementutzat jotzen den zerbait dela esan daiteke.

Idea horien bidez, Guaixe fundazioa osatzen dugun langile, bazkide, patrono, zein kolaboratzaileen garrantzia nabarmendu

ixie azioa

rrri za!

Kolorea erabakitzerako orduan, Tokikom osatzen duten beste komunikabideen kolore korporatiboak aztertu genituen. Horri esker, **laranja kolorea** erabiltzen genuen bakarrak ginela jakin genuen. Ezaugarri hori mantendu beharra zegoela erabaki genuen. Hala ere, tonua pixka bat moldatzea erabaki genuen, laranja-goa izatea eta ez horren gorrixka, ezberdinagoa izan zedin.

Tipografiari dagokionez, aurretik genuena mantentzea adostu genuen markaren elementu bereizgarritzat jo genuelako. Tipografia nahiko errotuta zegoen eta identifikagarria zela iruditu zitzaigun.

Fundazioaren, astekariaren eta irratia-
ren logoak, beraz, sortutako tipografia berri hori erabilita eratu genituen. Fundazioaren logoa **G (Guaixe)** eta **F (Fundazioa)** hizkiak bateratuta



forma berri bat sortuta irudikatu genuen, irizpide bera da komunikazio taldea osatzen duten astekari, irradi, webgune zein sare sozialetarako erabili duguna, **G (Guaixe) hizkia**.



Horretaz aparte, eta hasierako premisa horri erantzunez, bazkideak parte-hartzaile sentiarazteko asmoz, haiei ere tarte bat egitea erabaki genuen. Horrela, logotipo berri bat gehitu genuen **K (bazKide) hizkia** erabiliz. Zabaltea nahiko genukeen Komunitatearentzako baliagarria dena ere.



Ikusita tipografia horrek hizkiak elkartuta sor litzakeen formak, hitzen bidez **patroiak** sortzea interesgarria izan zitekeela iruditu zitzaigun hainbat diseinutan erabiltzeko baita irudiari indarra emateko ere. **Giltzarri horiek sortzen duten sarea irudikatzeke, Guaixe osatzen dugunon komunitatea irudikatzeke.**

nahi izan da. Denak baitira beharrezkoak fundazioa bizi dadin.

Giltzarriaren ideiatik hasita, fundazioaren irudi osoa tipografia batean eraikitzean oinarritu zen.


Eraikuntza arkitektoniko bat balitz bezala, forma geometrikoz eraikitakoa da eta giltzarri hitzari keinu eginez, arkuz beterikoa.

Display tipografia horren hizki guztiak sortzerako orduan, eraikitze sistema bera ezarri zen. Erretikula osatzen duten lau karratuen erpinak arkuengatik ordezkatzuz joan ziren alfabetoaren hizkien formak lortzeko.

Bestetik, Guaixe astekarian eta Beleixe irradian erabiltzen den **hizki nabarmenduari keinu eginez** eta informazio edo erreferentzia puntua islatuko lukeena, borobil laranja han-hemenka erabili da.

Bazkidetza Kanpaina horren leloa (**Giltzarri za!**) ere giltzarri edo beharrezko elementu horren ideiatik dator. Sinplea, baina zuzena izatea nahi genuen.

Guaixe



FESTAK

ITURMENDI

MIKEL DONEA FESTAK

MAIATZAK 10 Ostirala

19:30 Tiro al fletxa, gaztetxean.

IGAk antolatuta.

21:30 Bokatada, gaztetxean.

IGAk antolatuta.

23:30 Kontzertuak: Bulkada, Mandroll eta talde sorpresa, gaztetxean.

IGAk antolatuta.

03:00 Musikaldia, gaztetxean.

IGAk antolatuta.

MAIATZAK 11 Larunbata

12:00-14:00 Haurren jolasak.

13:00 Auzatea eta zortziko dantzatzea, txistulariekin.

15:00 XII. Iturmendi Saria afizionatuen ziklismo lasterketa.

Urbasa Txirindularitza Klubak antolatuta.

17:30 Gimnasia erritmikoko erakustaldia, frontoian.

20:00 Auzatea.

Arratsalde eta gauetz, Muxutruk taldearekin dantzaldia.

UHARTE ARAKIL

MIKEL DONEA ERROMERIA

MAIATZAK 12 Igandea

Goizean, erromeria Aralarko santutegira.

12:30 Meza, Aralarko santutegian.

14:30 Herri bazkaria, udalak antolatuta, santutegiko zabalgunean.

ARAKIL

SAN ISIDRO

MAIATZAK 15 Asteazkena

12:00 Meza, Itxasperrin. Ondoren, otamena.

ARBIZU

SAN ISIDRO

MAIATZAK 15 Asteazkena

20:00 Aatea: gazta eta ardoa, plazan. Urteko lehenengo aatea izanen da.

LIZARRAGABENGOA

SAN ISIDRO

MAIATZAK 15 Asteazkena

20:00 Auzatea, Bordatxo elkartearen ondoan.



ALTSASU Maiatzeko aurreneko asteburuan altsasuarrek Alde Zaharreko festak ospatu dituzte. Hainbat ekitaldi izan dira eta jendea etxean gelditzeko aitzakiarik ez da izan.



ARBIZU Loreak erosi, gozoak dastatu eta liburuak aukeratu eta etxera doan emateko aukera egon zen Arbizun.



OLATZAGUTIA Kioskoaren inguruan jarritako salmenta postuetatik jendea etengabe pasa zen XIV. Olatzagutiko lore eta landareen azokan.



0 km
SAKANAKO
GIDA

BEHERAPENETAN ARROPA DENDA BATEN BILA?

<https://guaixe.eus/gida/>





2023/2024 denboraldiko Erregional mailako Etxarri Aranatz, San Donato zelaian. UTZITAKOA

"Preferente mailan egotea merezi dugu, eta horretan gaude"

MATTIN ALTZELAI KARASATORRE ETXARRI FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

FUTBOLA Erregionaleko liga irabazteko aukera du Etxarri Aranatz liderrak igandean. Hala izanez gero, Preferenteko igoera fasea errazagoa litzateke. San Donaton asko dago jokoan

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranatz futbol taldea une gozo bezain erabakigarrian dago. Joan zen urteko denboraldian Preferente mailatik Erregional mailara jaitsi zen, eta aurten Erregional mailako laugarren multzoko liderra da, soilik puntu baten aldearekin. Igandean jokatuko du ligako azken partida, etxean, eta txapeldun bada, igoera fase errazagoa izango du. Beraz, asko dago jokoan. Nola aldatzen diren gauzak urte bateko epean.

Taldea, berez, ez da asko aldatu. Etxarriko gazte batzuk eta ingurukoak etorri ziren, eta bospasei jokalaririk horiek izan ezik, gaintzekoak joan zen urteko jokalariek gara. Erregionalera jaitsi ginen, eta Erregionaleko

"MOMENTU ONENEAN GAUDE. BOLADA ONA JUSTU DENBORALDI BUKAERAN HARRAPATU DUGU"

maila ere baxuagoa da. Nolanahi ere, Etxarriko Preferentean egotea merezi duela uste dugu. Gure taldea maila horretakoa da, nahiz eta zenbait arrazoiengatik joan zen urtean mailaz jaitsi. Aurten denboraldi ona atera zaigu, eta jokalaririk berrien laguntzarekin denboraldi biribila egitea lortu dugu.

Azkeneko partidatan ikusgarri ari zarete. Larunbatean 0-4 irabazi zenioten Beti Kozkor B taldeari, aurrekoan 5-0 Kirol Sporti... Liderrak zarete, baina puntu bakarrera San

Jorge duzue. Igandean erabakiko da liga irabazten duzuen ala ez.

Mutilvera izan zen lider jardunaldi askotan, baina azken jardunaldietan guri gauzak ongi atera zaizkigu, eta eurei ez horrenbeste. Ia denboraldi guztian lider izatearen presio horrek azkenean tentsioa dakar. Gu azkeneko jardunaldietan jarrai gara lider, eta emozio horiek kudeatzen saiatu gara. Badirudi tentsio puntu hori momentuz ongi etorri zaigula. Azkeneko partidatan garaipen sendoak lortu ditugu, eta pozik gaude. Ea horrela segitzen dugun eta azken partida nola ateratzen zaigun. **Igandean 18:00etan, sailkapenean bederatzigarren den Liceo Monjardin hartuko duzue San Donato zelaian. Lider izanda, pentsatzekoa da laugarren multzoko lider bukatu nahi duzuela.**

Helburu nagusia mailaz igotzea da, baina, jakina, aukera izanda, liga irabaztea ere bestelako xedea da. Ez da erraza izango, Liceo Monjardin nahiko talde gogorra iruditu zitzaidan. Etxean jokatzearen abantaila horrekin jokatzen dugu; ea zer gertatzen den. **Zale asko joango dira partidara? Jendea gogotsu dago?**

Etxarri beti egon da futbolarekiko zaletasuna. Herri txiki bat gara, eta etxarriarrei herriko taldea animatzea gustatzen zaie. Gainera, taldea ongi ari bada, jendea gusturago joaten da. **Irabaziz gero, ospatu duzue? Zerbait aurreikusia duzue? Afariren bat...** Bai, hori beti, taldean ospatzeko arazorik ez dugu, beti ospatzeko gogotsu gaude (kar-kar). Talde ederra dugu, nik ez dut sekula ikusi halako girorik talde batean. Edozein aitzakiarekin elkartzeko gara. Gauzak ongi ateratzen badira, hau da, liga irabazten badugu eta igoera fasean mailaz igotzea lortzen badugu, afari bat baino gehiago egingo dugu. Ospakizun handia.

Nahiz eta igandeko partida irabazi eta txapeldun izan, igoera fasea jokatuko beharko zenukete. Zein da igoera fasean izango zenuketen abantaila?

Erregional mailak lau multzo ditu, gurea laugarrena da. Lider

"GAUZAK ONGI ATERATZEN BADIRA, AFARI BAT BAINO GEHIAGO EGINGO DUGU: OSPAKIZUN HANDIA"

izango bagina, beste multzoren bateko txapeldun batekin jokatuko beharko genuke igoera fasea. Uste dugu Berriain taldea izan daitekeela. Kanporaketa bi jardunalditara jokatuko genuke, joaneko partida eta itzulerakoa, eta txapelduna zuzenean igoko litzateke Preferentera. Galtzen duen taldeak beste taldeekin batera igoera fasea jokatuko luke. Hau da, Erregional mailako multzo bakoitzeko lehen lau taldeek jokatzen dute, berez, igoera fasea. Kasu honetan, kanporaketa zuzenak dira, hau da, partida bakarrera jokatzen da igoera fasea. Igandean galdu eta bigarren bagara, zuzenean joango ginatke igoera fase horretara.

Hortaz, oso garrantzitsua da igandean irabazi eta lider izatea, arerio baten kontrako kanporaketa izango zenuketelako Preferente mailara igotzeko aukera.

Bai, oso garrantzitsua da igandean irabaztea, Preferentera igotzeko aukera gehiago dagoelako, eta igoera fasea beste sentsazio batzuekin zoazelako, motibatua eta animatua.

Sentsazioak garrantzitsuak dira; azken jardunaldietan geldiezinak zarete.

Denboraldian zehar sentsazioak ezberdinak izaten dira, baina uste dut sentsazio onenekin egon garen momentua orain dela. Momentu onenean gaude. Futbola ere boladak dira. Bolada ona justu denboraldi bukaeran harrapatu dugu, eta hori aprobetxatu beharra dugu.

Talde gaztea duzue, eta elkar oso ondo ulertzen duzuela agerikoa da. Bai. Benito Anguas dugu entrenatzaile. Joan zen urtean etorri zen lehenengoz taldea gidatzera. Zoritxarrez, maila galdu genuen, baina oso gustura geunden berarekin, harreman ona genuen, eta klubak beste aukera bat eman zion. Aurten gauzak ongi doaz, eta pozik gaude. Uste dugu Preferente mailan egotea merezi dugula, eta saiatuko gara.

Erregional mailako beste talde sakanarra Lagun Artea da, sailkapenean seigarren. Zoritxarrez, nahiz eta igandean etxean Rotxapeari irabazi (16:00, Zelai Berri) ezingo du igoera faseko lehen lau postuetan sartu, puntu gutxiengatik.

Liga luzea da, batzuetan partida txarrak ateratzen dira, bestetan onak, eta zoritxarrez aurten Lagun Artea ez du igoera faseko sailkatzea lortu. Baina hortxe ibili da, gertu.



Maria Jesus Lopez, Miguel Ulaiar, Rosa Prieto, Amaia Gerrikagoitia eta Juanito Gartziaandia.

Mendiak guztiontzat direlako

MENDIA 'Mendiak Guztiontzat' lelopean Montes Solidarios taldearen aurkezpen-hitzaldia eta Koskobidora irteera antolatu du Mank-ek maiatzaren 18an Olaztin. Desgaitasunen edo dibertsitate funtzionalen bat dutenak gonbidatuta daude

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, hainbat eragileekin elkarlanean, *Mendiak Guztiontzat* lelopean Gasteizko Montes Solidarios elkarteak egiten duen lana gizarteratzeko aurkezpen-hitzaldia eta, ondoren, Koskobidora irteera antolatu ditu maiatzaren 18an, 10:00etatik aurrera, Olaztin. "Sakanako Men-

dizaleak taldetik jaso genuen proposamena, desgaitasunen bat edo dibertsitate funtzionalen bat dutenei mendi irteeraren batean parte hartzeko aukera eskaintzearena. Gasteizko Montes Solidarios elkartearekin harremanetan jarri ginen, eta Olaztin sortu dugun ekimena gizarteratzen ari gara" azaldu du Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak.

Polita, eta beharrezkoa Hitzaldia eta Koskobiloko irteerara edozein joan daiteke, baina dei berezia egin zaie desgaitasunen bat edo dibertsitate funtzionalen bat dutenei, tartean ikusmen eta mugikortasun arazoak dituztenei, Montes Solidarioseko kideei esker irteera egiteko aukera izango baitute, elkarteok dituzten baliabideei esker. "Mu-

gikortasun arazoak dituzten pertsona batzuk harremanetan jarri dira gurekin, eta etorriko direla esan dute. Bestalde, Mila-kolorerekin eta Anfasekin harremanetan gaude. Ekimen polita iruditu zaie, ekimen polita eta beharrezkoa. Eta ikastetxeekin ere harremanetan jarri gara, behar bereziak dituzten ahalik eta pertsona gehienetara heltzeko. Sakandar guztiak animatzen ditugu, ekimen irekia da".

Maiatzaren 18an, 10:00etan Montes Solidarioseko kideek euren egitasmoa azalduko dute

Olaztiko Kultur Etxean. Jarraian, bildutakoak bertatik abiatuko dira Koskobidora, eta Aranzadiko Daniel Ruiz Gonzalezek az-tarnategiaren gaineko azalpenak emango ditu. "Aztarnategia eza-gutzeko irrikaz nago" dio Montes Solidarioseko Rosa Prietok.

"DESGAITASUNA DUTENEK ERE KOSKOBILO EZAGUTUKO DUTE" AMAIA GERRIKAGOITIA

"Esperientzia zoragarria da, sakandarrak animatzen ditugu"

ROSA PRIETO MENDAZA MONTES SOLIDARIOS ELKARTEKO KIDEA

Nola sortu zen Montes Solidarios?

Mendia izugarri maite zuen pertsona batek esaten zuen: "mendian disfrutatzen dudanarekin, nola da posible mendira joan ezin duen jendea egotea?". Eta arazoari irtenbidea eman nahian sortu zen elkarte, duela 8 urte. Hasieran mendiko irteerak ziren, baina denetatik egiten dugu: leizetara irteerak, lasterketak...

Zer nolako desgaitasunak dituzte zuenera jotzen dutenek?

Denetarik: mugikortasun murriztua, itsutasuna edo ikusmen arazoak, Down sindromea, autismoa...

Zeintzuk dira dituzuen lan tresna bereziak?

Joelette aulkia mugikortasun murriztua duen jendearendako da. Aulkiak gupil bakarra du, eta heldulekuak. Gutxienez lau



pertsonak mugitzen dugu. Ikusmen arazoak dituztenendako direkzio-barra dugu. 3 metroko barra da, eta pertsonak aurrean eta atzean gidariak ditu. Informazioa jasotzen du: harriak daudela, adarrak...

Zer moduzko esperientzia izaten da?

Zoragarria. Hasieran urduri daude, baina tresnak probatzen ditugu, eurak seguru sentitzeko. Berehala lasaitzen dira, eta asko disfrutatzen dute. Sakandar guztiak animatzen ditugu.

Txapeldunen kopa, Lezaman

FUTBOLA Bilbao Athletic taldeko atezaina da Oier Gastesi Serrano altsasuarra. Bigarren Federazioko mailako txapelduna izan da Bilbao Athletic, eta txapeldunen kopa jaso dute Lezaman. Ospakizun polita egin zuten jokalariek, atezainez jantzita dagoen Gastesi irribarretsua tartean. Datorren denboraldian Lehen RFEF mailan jokatu du Athletic-en filialak.





Aitor Mendoza, ezkerrean, Elon lehiatu ziren Dantzalekuko korrikalariekin, atzean Elomendi dutela. DANTZALEKU SAKANA

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatutako Nafarroako Kirol Jokoen (NKJ) Gazte Trail Txapelketa maiatzaren 5ean, igandea, erabaki zen, XV. Xtreme Higa de Monreal mendi lasterketan. Txapelketak hiru proba puntuagarri zituen. Lehendabizikoa Agoitzen jokatu zen, iraila bukaeran; bigarrena Etxarri Aranatzek hartu zuen, abenduaren 9an, Triku Trail taldeak Txakurkrosarekin batera antolatutakoa; eta igandean azkena jokatu zen, Elon. Dantzaleku Sakana Atletismo klubak sekulako maila eman zuen eta guztira zazpi podium lortu zituen.

Dantzaleku Sakana Atletismo eskolarekin hamabi korrikalari lehiatu dira aipatu txapelketan: haurren mailan, Ekhi Guirado, Aratz Mendoza, Urko Alkorta eta Ezkai Lakuntza altsasuarrak; kadeteen mailan, Jon Orella eta Aner Artieda etxarriarrak, Victor Fernandez irurtzundarra eta Asier Gonzalez altsasuarra; eta jubenilen mailan Kimetz Arregi lakuntzarra, Javier Larrea urdiaindarra, Jorge Diaz aguraindarra eta Madi Lizarraga altsasuarra. Azken hau taldeko neska bakarra da. "Iaz sei nesketako talde polita genuen haurren mailan, baina aurten futbola aukeratu dute eta Madi da bakarra" azaldu du Dantzaleku Sakana atletismo eskolako monitorea Aitor Mendozak.

Joan zen urtean sortu zen Dantzalekun taldea sortzeko

Dantzalekuren zazpi dominak

MENDI LASTERKETAK NKJ-en Gazte Trail Txapelketan sekulako maila eman dute Dantzaleku Sakana klubeko neska-mutiek. Zazpi podium egin dituzte: bi lehen postu, hiru bigarren postu eta bi hirugarren postu, eta, garrantzitsuena, "izugarri" disfrutatu dute

ideia. "Triku Traileko Igor Artieda etxarriarra eskolako gurasoetako bat da, Nafarroako Mendi Federazioarekin harremana du, eta gazteen artean mendi lasterketen taldetxo bat sortzeko ideia plazaratu zuen. Begi onez ikusi, eta aurrera egin genuen" dio Mendozak.

Haurren mailan lasterketek bospasei km izan dituzte, kadeteen mailan gehienez 8 kilometroak izan dira, eta jubenilen mailakoak 10-12 kilometro inguruak. "Mendi lasterketek antolatzen duten ibilbide laburrekin bat egiten du gehienetan".

"EUREN ARTEAN DUTEN LAGUNTASUNA ETA KIROLTASUNA HARRIGARRIA DA"
AITOR MENDOZA

Eloko zazpi dominak

Igandean, Elo txiki geratu zen XV. Xtreme Higa de Monrealen parte hartu zuten korrikalariak hartzeko. Bi proba nagusi zeuden, 21 km-koa eta 12 km-koa, eta, horretaz gain, haurren eta kadeteen 5 km-koa. Parte hartze errekorra apuratu zen, guztira 350 korrikalari baitzeuden izena emanda, lasterketak zuen muga.

NKJ-etako Gazte Trail Txapelketako hiru probak kontuan hartuta, sailkapen orokorrean zazpi domina iritsi dira Sakanara. Haurren mailan, Aratz Mendoza bigarren sailkatu zen, eta Ekhi Guirado hirugarren. Urko Alkortak eta Ezkai Lakuntzak ezin izan zuten Eloko azken lasterketa honetan parte hartu. Guirado hirugarren izan zen Elon, eta Mendoza bosgarren. Kadeteen mailan, sailkapen orokorrean Victor Fernandez biga-

rren sailkatu zen, eta Jon Orella hirugarren. Eloko proban Victor Fernandez bigarren izan zen, Jon Orella laugarren, Aner Artieda zazpigarren eta Asier Gonzalez zortzigarren. Bukatzeko, jubenilen mailan Dantzalekuko Javier Larrea izan zen Gazte Traileko txapelduna, eta bere taldekide Kimetz Arregi txapeldunorde. Eloko proban Larrea laugarren sailkatu zen, eta Arregi zazpigarren. Emakumezkoen jubenilen mailan Dantzalekuko Madi Lizarraga izan zen txapelduna. Haurren mailan ez zen emakumerik lehiatu.

"MENDIA, KROSAK ETA LOHIA. HORI DA SAKANAN DUGUNA, ETA GUSTUKO DUGUNA"
AITOR MENDOZA

Kiroltasuna eta harremana

Dantzalekuko korrikalariak "oso pozik" daude NKJ-etako Gazte Trail Txapelketan bizitakoarekin. "Neska-mutiek bikain pasatu dute lasterketa hauetan, eta harritzekoa izan da euren artean duten laguntasuna, adiskidetasuna eta kiroltasuna gertutik ikustea. Helmugan guztiok itxaroten zieten taldekideei, eta nolako besarkadak ematen zizkioten elkarri. Ikusgarria zen". Asier Gonzalezen adibidea jarri du. "Pista gustatzen zaio bereziki, baina mendi lasterketak probatu nahi zituela, eta Elon korrika egitera animatu zen. Helmugan errepikatuko duela zioen" kontatzen du Mendozak. Gainontzekoek, berdin.

Aratz Mendozaren kasua berezia da, arbizuar gazteak hepatitis 1 gaixotasuna baitu. Egutero hainbat aldiz jarri behar du insulina, eta lasterketetan gaixotasuna kontrolatzea ez da erraza izaten. "Lasterketak hasi baino lehen glukosa oso altua izaten du, baina konturatu gara urduritasunak, hau da, adrenalina, igoera hori areagotzen diola, agian 10 minututara glukosak beheraka egiten baitio nabarmen. Zaila da, baina oso gustura ari da Aratz". Elon pozik zorutzen zegoen. "Bigarrena izan naiz, eta diabetikoa naiz! esaten zuen".

Aitor Mendozak argi du talde honek mendi lasterketetan jarraituko duela. "Pistan eta krosean ere ibiltzen dira, baina mendi lasterketak gustuko dituzte. Mendia, krosak eta lohia. Hori da Sakanan duguna, eta gustuko duguna".

Behin betiko trail zirkuitua

Aurten 70 neska-mutil inguru trebatzen ari dira Dantzaleku atletismo eskolan. Fermin Askargortak jarraitzen du koordinatzaile, Aitor Mendozarekin eta Ekhi Olabiderekkin batera. Aurten Askargortak 10 urtez azpikoen benjaminen ardura du, Mendozak 12 urtez azpiko kimuena, eta Olabidek nagusiena. Aurten Dantzalekuk ez du ez pistako ez krosek probarik hartu, pisten egoerarengatik eta futbol zelaiko lanengatik. Dantzaleku parean, Usolarrainen, behin betiko trail zirkuitu berria egitea lortu du klubak. "Oso kontentu gaude. Urtean bitan ibilbidea garbituko omen dute. Kroserako albiste bikaina da".

Berri onak Xotan



Xotako talde guztiak Irurtzongo plazan, Lacturale babeslearekin. XOTA

Xota familiaren topaketa Asteartean Xota klubeko talde guztietako jokalariek, lehen mailakoek baita ere, familia argazkia egin zuten Irurtzongo plazan, Lacturale babesleak sustatutako ekimenaren barruan.



Lehen Senior mailako Xota taldea. XOTA

Lehen Senior mailako Xotak, denboraldiari agur Lehen Senior Mailako Txapelketa Errioxako Promesas EDF taldeak irabazi du, eta Xota seigarren sailkatu da. Kopan, Xotak ez zuen aurrera egitea lortu eta, hortaz, denboraldia despeditu du.



Xota gizonetzko kadeteen taldea. XOTA

Xota, txapeldun Gizonetzkoen kadete mailako areto futbol txapelketa irabazi du Xotak (66 puntu), Ribera Navarraren aurretik (62 puntu). Larunbatean, 26. eta azken jardunaldian, Xotak 4-1 hartu zuen mendean Cintruenigo eta pozik ospatu zuen garaipena.

"Nire izena entzun nuenean, nire familia etorri zitzaidan burura"

OIER AGUIRRE LOPEZ XOTAKO JOKALARIA

ARETO FUTBOLA 12 urtetik Xotako harrobian trebatu da Oier Aguirre iturmendiarrak, eta ostiralean ametsa bete zuen: lehen mailan debutatzea, Osasuna Magna Xotarekin

Maidar Betelu Ganboa ITURMENDI Oier Aguirre Lopezek (Iturmendi) ez du 2024ko maiatzaren 3a sekula ahaztuko. 19 urteko gazteak egun horretan debutatu zuen areto futboleko lehen mailan, Osasuna Magna Xota taldearekin. 2 minutu izan ziren, baina iturmendiarrak emandako aukerari zukua atera zion, itxura ona eman zuen, eta Xotak gaur, ostirala, Peñiscolan jokatuko duen ligako azken partidarako ere hautatuen zerrendan dago.

Maiatzaren 3an ametsa bete zenuen: Osasuna Magna Xotarekin lehen mailan debutatzea. Cordobaren kontrako partida oso estua izan zen, azken unean erabaki zena. 3-2 irabazita, debut gozoa izan zenuen. Niretako debuta oso gozoa izan zen, bai. 11-12 urterekin hasi nintzen Xotan areto futbolekin jokatzen, eta lehenengo mailara iristea ia ezinezkoa zela iruditu izan zait beti; nire burua hor ikustea, eta debuteko partidaren 2 minutu jokatzea, niretako zoragarria izan da.

Betidanik areto futbolekin aritu izan zara ala futbolekin ere ibilia zara? Txikitik futbola jokatzen nuen Altsasan, baina amari eta aitari aipatu nien areto futbola gustukoa nuela. Xotarekin probatu nuen, eta 12 urterekin hasi nintzen Irurtzunen, infantiletan. **Harrobian gora egin duzu. Azken urteetan harrobiko zein taldetan lehiatu zara?**

Joan zen denboraldian Xota Ibararte zen lehen taldearen harrobia. Aurretik Bigarren B mailan lehiatu zen, baina hirugarren mailara jaitsi, eta ni joan zen urtean talde horrekin lehiatu nintzen, hirugarren mailan. Aurten Bigarren B mailako Anaitasuna da Osasuna Magna Xotaren harrobia, eta nik bertan jokatzen dut.

Puntualki lehen mailako taldearekin entrenatzera joateko deitu al zizuten?

Aurtengoa oso urte arraroa eta berezia izan da niretako. Udan oraindik ez nekien non ikasi behar nuen. Azkenean, NUP-en irakasle ikasketak egitea erabaki nuen. Klubari esan nionean, Anaitasun lekua egin zidaten. Aurre denboraldian, lehen taldeko Miguel Hernandez entrenatzaileak deitu ninduen, eurekin entrenatzeko. Ez nuen espero, eta ordutik talde nagusiarrekin entrenatzen ari naiz. Denboraldi hasieran ez nuen horrenbeste entrenatzen, baina orain, lesioak direla eta beste, egun guztietan entrenatzen dut eurekin. Esan daiteke ia-ia beiraiekin taldekoa naizela.

"TXIKITATIK JOKATU IZAN DUT XOTAN, BAINA LEHEN MAILARA IRISTEA IA EZINEZKOA IRUDITU ZAIT BETI"

Bitartean Anaitasunarekin partidak jokatzen jarraitu al duzu?

Bai, taldean jarraitzen dut. Lehen mailako Xotaren partidetara joan naiz, baina orain arte aulkian egon naiz. Xotak ostiralean jokatzen badu, larunbatean edo igandean Anaitasunarekin jokatzen dut, baina partidak kanpoan badira, esaterako, Madrilan, Galizan... asteburu horretan ez dut Anaitasunarekin jokatzen. **Nolako da Bigarren B mailan Anaitasunarekin jokatzea?**

Anaitasunak joan zen urtean Bigarren B mailako liga irabazi zuen, baina ez zuen mailaz igotzea lortu, eta aurten plantilla ia osoa aldatu dute. Joan zen urteko bizpahiru jokalarik izan ezik, gainontzekoak berriak gara, zortzi-bederatzi jokalarik, gehienak 19-20 urtekoak. Bigarren B maila berria da askorendako, eta kosta egin zaigu. Taldea egitea tokatu zaigu, zerotik hasi. Ongi hasi ginen, gero beheko postuetan sartu ginen, baina azkenean salbazioa lortu genuen eta lasai gaude. Bigarren B maila oso ona da; aurretik lehen mailan jokatu izan duten jokalariek jokatzen dute, baita bigarren mailakoek ere, eta hasi berriek. Liga oso lehiakorra da. **Zer du areto futbolarik horrenbeste erakartzeko?**

Badirudi futbolaren parekoa dela, baina kirol ezberdinak dira. Areto futbolekin defendatzen eta erasotzen jakin behar duzu.

Zelai osoan barna mugitu behar zara, eta guztia egiten jakin behar duzu. Kirol oso taktikoa da, jokalari asko aurretik entrenatzen dira, eta arau bereziak ditu. Oso dinamikoa da, azkarra; beti erasoan gaude, eraso bat bestearen atzetik.

Ez dago erlaxatzeko unerik. Segundo batean dena aldatu daiteke.

Areto futboleko segundo batean edozer gauza gerta daiteke.

Hegala zara, alboan jokatu duzu. Xotan hegala naiz, baina Anaitasunarekin batzuetan defentsa gisa jokatu dut, defentsako lehen jokalaria. Posizio oso ezberdinak dira, eta bakoitzak berea du.

Ostiralean debutatuko zenuela bazenekien? Miguel Hernandezek zerbait esan zizun?

Batetik, espero nuen, baina ez nengoen oso ziur, partida bakoitzean denetarik gerta daitekeelako. Xotak salbazioa lortua zuenez, uste dut hori beste plus bat izan dela nik debutatu ahal izateko. Ostiralean esan zidaten prest egoteko, eguna izan zitekeela... eta izan zen.

Anaitasunaren jokatu duen denboraldiko azken partidaren kantxara ateratzeko zure izena entzun zenuenean zer sentitu zenuen?

Nire izena entzun nuenean, nire familian pentsatu nuen lehenengo. Beraiek izan dira txikitatik entrenatzen eraman nautenak eta egun guztietan huts egin ez dutenak. Areto futbolak momentu onak ditu, baina baita momentu txar asko ere. Familiakoak

Anaitasunaren zeuden, nirekin jokatu duen jende asko baita ere, nire lagunak... alde batetik urduri, baina, bestetik, jokatzeko gogotsu nengoen. Niretako poz handia izan zen, eta gainera, partida irabaztea, sekulakoa.

Nola ikusi zenuen zure burua? Bigarren B mailarekin alderatuta ezberdintasuna sumatu zenuen?

Bai. Lehen mailan areto futboleko munduko jokalaririk onenek jokatu dute, eta hori asko nabaritzen da: erritmoa, intentsitate handia, indarra... Nire fisikoa eta beraiena alderatuta, nire bikoitzak zirela ziruditen. Hala ere, intentsitatearekin, hankak izugarri nekatzen dira, uneoro adi egon behar duzulako. Ezin zara ezta ehuneneko batean despistatu ere, edozein akats edo huskeria gola izan daitekeelako. Taldekideek asko lagundu ninduten, eta hori eskertzekoa da.

Zer esan zizun Miguel Hernandezek? Kontentua al zegoen?

Bai. Bukaeran talde guztiak zoriandu ninduen. Une polita izan zen; partida irabazita, gehiago. Miguelek esan zidan ongi ikusi ninduela, eta Roberto Martil kapitain eta bigarren entrenatzaileak lehen mailan lehenengo minutuak jokatzeko ez dela bate-

"LEHEN MAILAKO ERRITMOA, INTENSITATEA, INDARRA... ASKO NABARITZEN DA"

re erraza aipatu zidan, eta ongi egin nuela.

Ligako azken partida Peñiscolan jokatu du Xotak. Deialdian zaude? Bai, deialdian nago. Gaur, maiatzak 10, jokatu dugu, 20:00etan. Zer espero duzu datorren denboraldirako?

Denboraldia bukatzen denean plantilla zehazten hasiko dira, jokalaririk zehazten, gurekin hitz egiten... Nik uste dut lehen mailan minutu asko jokatzeko oraindik geratzen zaidala, esperientzia hartu behar dudala. 19 urterekin pixka bat jokatzeko niretako asko da.

Beraz, aurtengo denboraldiaren antzekoa espero duzu? Anaitasunarekin segitzea eta tarteka lehen mailan minutu batzuk jokatzeko?

Ez dakit, hitz egin beharko dugu, baina litekeena da aurtengo denboraldiaren antzekoa izatea. Bestalde, agian oker nago, baina behin debutatuta eta urte osoa beraiekin entrenatu ondoren, agian minutu gehiago izan ditzaket. Ez dakit.

Unibertsitate ikasketak eta areto futbola. Zer moduz zabilta guztia uztartzeko?

Guztia aurrera eramatea ez da batere erraza. Futbolak denbora pila bat kentzen du, oso esklaboa da. Goizean entrenatzen dugu, eta klaseak ere goizean dira. Hortaz, klase asko galtzen ditut, etxean nire kabuz landu beharrekoak, baina momentuz dena ari naiz gaintitzen, eta pozik nago. Azkeneko azterketak geratzen zaizkit, azken hilabetea.



Lasterketa azkeneko Iturmendin jokatu zenekoa, 2019an. ARTXIBOA

Aurten igandez jokatu da Aitzkibil, eta Milakoloreren alde

ATLETISMOA Aldaketekin dator Aitzkibil herri lasterketa. Maiatzaren 19an izango da, igande goizean, Iturmendin

M.B.G. ITURMENDI

Aitzkibil lasterketak garai batean Aitzkozar izena zuen, Iturmendiko Aitzkozar elkarteak sortu zuelako. Ondoren Bakaikuko Bakarrekotzaren elkarteak batu zitzaion, eta joan zen urtean Urdiango Tintinurri elkarteak. "Ez zitzaigun ongi iruditzen lasterketak soilik Iturmendiko elkartearen izena mantentzea, eta azkenean Aitzkibil izena aukeratu genuen, justu gure hiru herrietan dagoen dermio bat delako" azaldu du Aitzkozarreko Urko Agirre Gabirondok.

Iturmendin dagokio herri lasterketaren hasiera eta helmuga izatea. Orain arte Trinitate festa baina egun bat lehenago antolatzen zen proba, baina aurten galdeketa egin da Bakaikun eta Iturmendin, eta Trinitate festa igandetik larunbatera aurreratzeko erabaki da, maiatzaren 25era. Horrek eragin zuzena izan du Aitzkibilen. "Data aldaketarekin jabetu ginen ez zuela zentzurik Trinitateko asteburuan proba egitea. Gainera, gure asmoa aurten igandearrekin probatzea zen. Beraz, proba aurreratu dugu eta maiatzaren 19an, igandearrekin, jokatu da".

Igande goizaren aldeko apustua egin dute Aitzkibilkoek. "Beste toki batzuetan jendea animatzen da; ea hemen nola ateratzen den. 10:30ean haurren lasterketa izango da, eta 11:30ean helduena, Iturmendiko plazatik".

Joan zen urtean bezala, helduendako bi distantzia prestatuko dituzte. 7,6 km-koak Itur-

mendi, Bakaiku eta Urdiain batuko ditu, buelta bakarrean, eta 4,3 kilometrokoan ibilbide luzearekin batera joango dira korrikalariak Bakaikuraino, baina gero Iturmendira itzuliko dira. "Askotan jendea kezkatzen da ibilbide luzea gehiegi dela, eta horregatik jarri dugu laburra, gutxiago ibiltzen direnek aukera izan dezaten".

Izena ematea, zabalik

Aitzkibil lasterketan izena ematea zabalik dago Dantzaleku Sakana webgunean. "Antolakuntzari begira jendeak aurretik izena ematea bihotzez eskertzen da, baina egunean bertan Aitzkozar elkartearen izena emateko aukera egongo da, proba hasi baino ordu bat lehenago arte" azaldu du Urko Agirrek.

Parte hartzen duten korrikalari guztiek oparia jasoko dute, txapelduneko trofeoa, eta guztiendako askaria izango da. Jendea animatzea, hori da falta den bakarra.

Elkartasun krosa izaki, aurten Sakanako Milakoloreraren elkarteak lagunduko du Aitzkibil. "Iaz oso esperientzia ona izan genuen Urdiainen Zapareak elkartearekin, oso pozik gaude. Laguntza beharrezko dauden elkarte asko daudenez, eta fronte pila bat, aurten Milakoloreraren elkarteak gonbidatu dugu. Ea behar bezala laguntzen diegun". Bestalde, giroa sortu nahi dute Iturmendin. "Igande tonto batean herrian bizi egotea polita da. Jendea animatu dadila".



Oier Aguirre Lopez, gorritz, Osasuna Magna Xotarekin debutatzen. JESUS AGUIRRE ULLATE

AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN.** Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 10

URDIAN Tailerra.

Zoru pelbikoaren eta gorputz jarreraren hipopresibo tailerra, Sakanako Mankomunitateko Kirol zerbitzuak antolatuta. Izena ematea: 683 343 854 edo kirolak@sakana-mank.eus.
17:00etan, herriko etxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Gozagala Gozamenez film laburren lehiaketaren sari banaketa gala.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Aurkezpena.

Asisko Urmenetaren *Gora euskal errietsak!* emakume aitzindariak kulturaren transmisioan saiakera grafikoaren aurkezpena eta solasaldia. Altxa burua! Sakanako euskaltzaleen sareak antolatuta, Urtzi tabernaren, Ugari Amaia Otadiaren, Zelai klinikaren eta Portuko okindegiaren laguntzarekin.
19:00etan, Gure Etxean.

ALTSASU Kontzertua.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua, Nafarroako Kontzertu Sinfonikoen Zikloaren baitan. Programa: W.A. Mozart, G.P. Telemann eta L.V. Beethoven. Jose Luis Lopez Antonen zuzendaritzapean, Carolina Uriz biola jotzaile nafarraren parte hartzearekin. Sarrerak: 10 euro.
19:30etan, Iortia kultur gunean.

LARUNBATA 11

ALTSASU Mendi martxa.

XV. Hiru Mendizerrak IV. Ochoa de Olza Memoriala. Hiru ibilaldi: luzea, 48 kilometro eta 2.330 metroko desnibela; ertaina, 37 kilometro eta 1.634 metroko desnibela, eta laburra, 26 kilometro eta 1.200 metroko desnibela. Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta. SOS Himalaya Fundazioa lagunduko dute.
07:00etan, Burunda frontoia.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

The Palace gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

Igandea 12: 19:30
Astelehena 13: 19:00

La Casa gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
Osteguna 16: 19:00

IRURTZUN Martxa zikloturista.

IV. La Peluso marxa zikloturista. Bi ibilbide: luzea, 138 kilometro eta 2.700 metroko desnibelekoa, eta laburra 87 kilometro eta 1.550 metroko desnibelekoa. 1985 urteko Reynolds taldeko txirindulariak eta Imanol Erbiti omenduko dituzte. La Peluso Cycling Taldeak antolatuta.
08:30ean, Foru plazatik.

LAKUNTZA Andra Mari Ikastolaren jaiak.

10:00 Lakuntzako basora mendi buelta.

10:30-14:30 Erakusketa, udaletxean.

12:00 Haur tailerrak, plazan.

13:00-14:00 Buruhandiak.

13:30 Auzatea eta trikipoteoa Xiruren eskutik.

15:00 Bazkaria. Ondoren, Bingo musikatua.

16:00-19:00 Puzgarriak.

17:00 DBH 4. mailako ikasleei eta irakasleei omenaldiak. Ondoren, sokatira.

19:00 Buruhandiak eta musika.

20:30 Zezensuzkoa.

ETXARRI ARANATZ Escape room

Berdintasun escape rooma: Uriz Pi ahizpak.
16:30ean, 18:00etan eta 19:30ean, gazte txokoan.

OLATZAGUTIA Maisuenea

gaztetxearen XXIX. urtemuga.

11:00 Haur jolasak, futbito pistan.

12:00 Txupinazoa. Ondoren, karro poteoa.

14:30 Babarrun jana.

18:00 Mozkor olimpiadak, futbitoan.

19:00 Kalejira.

21:30 Herri zezen suzkoa, gaztetxean.

22:00 Herri bokatada, gaztetxearen parean.

23:30 Kontzertuak: Kota Zero, Boletus Rumberus eta Akabo.

IZURDIAGA Kontzertua.

Iruñeko Santa Maria la Real de Voces Graves koroaren kontzertua. Nafarroako Abesbatzen elkarteak antolatuta *Con voz propia – Gogo bete kantuz* zikloaren barruan.
12:00etan, elizan.

ETXARRI ARANATZ Omenaldia.

Pello Mariñelarena XXXI. erailketaren urteurrenaren omenaldia, Jardunek antolatuta.
13:00etan, plazan.

BAKAIKU Kontzertua.

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko akordeoi ikasleen kontzertua: Adrian Martinez, Asier Capon eta Ainhoa Quintana.
19:30ean, plazan.

IGANDEA 12

OLATZAGUTIA Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleak taldearen mendi irteera: Olabe – Saigots – Ezkaba ihesaldia (bigarren etapa) 14,08 kilometroko ibilaldia, 577 metro aldapan gora eta 507 metro aldapan behera. Ondoren, bazkaria Zubiriko Gau Txori jatetxean.
07:00etan, plazan.

ALTSASU Txirindularitza irteera.

Barranka Txirindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Amoko labirintora 54 kilometroko ibilbidea.
08:30ean, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Gazte agenda.

Karaoke.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ASTELEHENA 13

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEAZKENA 15

IRURTZUN Mobilizazioa.

Nakbaren urteurrena. *Palestina askatu!* Israelen eta bere



UTZITAKOA

ALTSASU Erraldoiak 80 urtez Altsasun erakusketa: erraldoien kontzertuaren historiaren argazkiak, 2019an eta 2022 Aitor Callejak egindako figuren sortze prozesuaren argazkiak, lau erraldoiak eta abar. Maiatzaren 12ra arte. Iortia kultur gunean.



mendebaldeko konplizeen aurkako mobilizazioa. Sakanako Kontseilu Sozialistak antolatuta.
18:00etan, Foru plazan.

IRURTZUN Irakurle taldea.

Aizpea eta Pikuxar irakurle taldea: Esti Martinezen *Animalia Domestikoak* liburua mintzagai.
19:00etan, Pikuxarren.

LAKUNTZA Batzarra.

Lakuntzako Festa Batzordea 1.
19:00etan, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ Film dokumentala eta solasaldia.

Fedayin, la lucha de Georges Abdallah film dokumentalaren emanaldia: Georges Ibrahim Abdallah libanoarra Palestinaren alde borrokatzeagatik 1984ko urrian atxilotu zuten. European denbora gehien preso daraman ekintzailea da. Ondoren, Ohian Barandallaren eta Haimar Altunaren Palestina eta Euskal Herriko presoen ekarpen politikoaren inguruko solasaldia. Pello XXXI. Urtemugaren barruan.
19:00etan, kultur etxean.

OSTIRALA 17

Satrustegi Bisita gidatua.

Satrustegiko sendabelarrak ezagutzen: bertako sendabelarrak ezagutzeko bisita gidatua eta nola

IRURTZUN Raul Oloriz Espinal artistaren erakusketa. Maiatzaren 31era arte. Pikuxar tabernan.

prozesatu ikasteko tailerra. Kulturen arteko elkartasun zikloaren barruan.
17:00etan, plazan.

ALTSASU Jardunaldia.

Iraultzaren norantza jardunaldiak, Sakanako Kontseilu Sozialistak, GKS, Itaiak eta Ikasle Abertzaleak antolatuta.
17:00 Graffiti tailerra, Iortia zabalgunean. Autodefentsa tailerra, garbitokiko gimnasioan.

18:30 Mahai ingurua: Nola jasaten dugu errepresioa?

Iturmendiko kasua, Indar Gorriko kide bat eta Altsasu Auziko auziperatu bat, Gure Etxean.

20:30 Pintxopote girotua: Nerepe, gaztetxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Steam Elhuyar ezagutzuz aldatzen.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Aurkezpena.

Altsasu Auziaren Memoria Gunearen aurkezpen ekitaldia.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

LAKUNTZA Liburu aurkezpena.

Palestina. Piedras y olivos Bingen Amadozen liburuaren aurkezpena.
18:30ean, plazan.

IRURTZUN Kontzertua.

Iratxo Eguna: Transfugas taldearen kontzertua.
19:00etan, elkartean.

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



Miren Cob Gurrutxaga

Laztan bat jasotzen dugu zurekin gogoratzen garen aldiro. Zu maitatzea erraza izan zen, zu ahaztea ezinezkoa. Gure izar bihurtu zara, bidea argitzen diguna. Maite zaitugu

Etxekoak

ESKELA



Miren Cob Gurrutxaga

Maiatzaren 5ean zendu zen 57 urterekin

Gustura, zure ondoan; elkar zaintzen. Zure hutsunea, handia; baina gaudenok elkar zainduko dugu. Bidaia ona izan, Miren.

Altsasuko familia

OROIGARRIA



Fran Ramon Maiza Oscar Maiztegui Nazkin

Beti yonko zarie gukin

Etxarri Aranazko 68ko kintuek

OROIGARRIA

Jose Mari Martinez de Esteban Enekoitz Mendiola Barandalla Nati Aiestaran Goñi

Gukin betiko yonko zarie

Etxarri Aranazko 72ko kintuek

OROIGARRIA



Ange Madrigal Lopez Luis Mari Arratibel Mendinueta

Beti gukin

Zuen kintuek

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ERRETAN EMAN

Lizarragako Azi Iturri Txokoa San Adrian festetan kudeatzeko enkantea: Maiatzaren 19an, igandean, eguerdiko 12:00etan, Azi Iturri Elkartearen bertan. Gutxieneko prezioa 1.000 euro izango dira. Festak ekainaren 15,16 eta 17an izango dira. Animatek zaitzete!

Ziordiko Udalak Etxaleku taberna emateko deialdia egin du: Urte baterako kontratua eskaini du, hirutan luza daitekeena. Eskaintzak maiatzaren 14ra arte aurkez daitezke. Deialdiari buruzko informazioa udaletxean edo labur.eus/BMZgT web orrian dago.

LAN ESKAINTZA

Liburuzain eta kultur dinamizatzaile lanpostua betetzeko oposi-

zio-lehiaketa Lakuntzan: Lanaldia %55ekoa izango da. Deialdian parte hartu nahi dutenek C1 mailako euskara maila izan beharko dute. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 22an amaitzen da. Udalaren www.lakuntza.eus web orrian informazio gehiago.

Arbizuko Udalak zerbitzu anitzeko aldi baterako lanpostua bete nahi du: Deialdian interesa duenak langabezia egon behar du eta B1 euskara maila izan behar du. Eskabidea Nafar Lantzen Altsasun duen enplegu bulegoan aurkeztu behar du maiatzaren 16a baino lehen. D mailari dagokion soldata jasoko du. Informazio gehiago www.arbizu.eus web orrian edo enplegu bulegoan.

LEHIAKETA

Olaztiko Santa Ana festak iragartzeko kartel lehiaketa: Bertan testu hau agertu beharko da Santa Ana 2024. Olazti. Uztailaren 25etik 28ra. Lanak erregistro elektronikoko bidez edo udaletxean aurkez daitezke ekainaren 17ko 14:00ak baino lehen. Sariak egonen dira, oinarriak eta informazio gehiago Olaztiko Udalean edo www.olazti.eus web orrian.

Altsasuko festetako kartel lehiaketa 2024: Festetako programan azala (helduen modalitateko irabazlearena) eta kontrazala (haurren modalitateko irabazlearena) aukeratuko dira. Lanak ekainaren 17ko 14:00ak baino lehen lortia Kultur Gunean aurkeztu behar dira. Oinarriak eta informazio gehiago [\[tsasu.net\]\(http://tsasu.net\) eta lortia kultur gunean.](http://www.al-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Irurtzungo jaietako kartel lehiaketa martxan: Lanak aurkezteko epea maiatzaren 27an amaitzen da. Sariak egonen dira bai haurren kategorian bai helduen kategorian ere. Oinarriak eta informazio gehiago www.irurtzun.eus web orrian, Irurtzungo Udaletxean eta kultur etxean.

OHARRAK

Euskara ikastaro teknikoak egiteko dirulaguntzak: Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, atzera ere, ikasketa ofizialak eta arautuak ez diren ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi edo gisa-koetan parte hartu duten herritarrei dirulaguntza emateko deialdia zabaldu

du. Joan zen urteko azaroaren 1etik aurtengo abenduaren 31ra bitarteko ikastaroen matrikulak. Beti ere, edozein gairi buruz euskaraz egindakoak badira, aisialdiko monitore edo zuzendari izateko euskarazko ikastaroak barne. Horiez aparte, euskararen edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo soziolinguistikarekin zerikusia dutenak ere lagunduko ditu. Laguntzatik kanpo geldituko dira egoitza eta kilometraje gastuak. Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, aurtengo abenduaren 31rako bukatuta ez dauden ikastaroen kasuan, gutxienez %80ko asistentzia eskatuko die parte hartzaileei data horretarako. Deialdiari buruzko informazio guztia sakana-mank.eus webgunean.

Altsasuko Musika eta **Dantza Eskolan izena emateko epea zabalik:** Zalantzak eta informazio gehiago 948 564 581 telefonon. Matrikula egiteko administrazio ordutegia 15:00etatik 20:00etara, online www.altsasu.net web orrian. Epea maiatzaren 22ean amaitzen da.

Etxarri Aranazko Udaltetik etxerako egur lotak eskatzeko epea zabaldu dute: Lote bakoitzak 44 euro balio du. Eskabide orria beteta eta ordainagiria aurkeztu behar dira zozketan parte hartzeko. Epea maiatzaren 17an amaitzen da. Zozketaren eguna eta ordua bando bitartez jakinaraziko da.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Duna Aristu Perez**, maiatzaren 1ean Iturmendin
- **Helena Rollan Lobato**, maiatzaren 5ean Urdiainen

HERIOTZAK

- **Maria Fermina Somocurcio Echeverria**, maiatzaren 5ean Altsasun
- **Miren Cob Gurrutxaga**, maiatzaren 5ean Altsasun
- **Victoria Zelaia Zufiaurre**, maiatzaren 5ean Altsasun
- **Miguel Francisco Goikoetxea Agirre**, maiatzaren 6an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Ez du drama gehiagorik nahi bere bizitzan

Arazorik ez izateko gertatu dena isiltzea ez zait etikoa iruditzen. Aurten gutxitan agertu naiz GUAIXERen orrialdeetara, eta, hala eta guztiz ere, idazten dudana bakoitzean *dejà vu* sentsazio mingotsa dut nire gogoan, arazo berberak oraindik konpondu gabe, edo, makurragoa dena, okerrago daudela egiaztatzen dudalako.

Egoera gaiztoa ez da aldatzen. Ikasturtearen hasieran mendeku errukigabe baten lekuko izan ginen. Milaka hildako eragin ondoren mendeku gosea asetuko zela uste genuen, baina ez zen hala izan. Hamaika mila erregabe erail ondoren, ere ez; ezta hogeita hamar mila erail zituztenean ere. Honez gero, ez dakigu zenbat hildako berri diren, zenbatezinak baitira.

Kantari batek kantatzen zuen bezala, badira asko "beren bizitzetan drama gehiagorik nahi ez dutenak, soilik komedia entretenigarriak." Ez dute tragediarik nahi. Erabaki dute

besteen arazoez ez kezkatzea, ez ikusiarena egitea.

Galdera batzuk egiten zituen kantariak: "Zer inporta du dena gezurra izateak? Zertarako kezkatu egunaren bukaeran dena berdin jarraituko badu? Aspergarria da beti kezaka ibiltzea, atsedetik gabe, eta, gainera, zertarako balio du?" Eta bukatzen zuen esanez berak barre egiten zuela arazo guztien aurrean.

Arazoak daudenean, beste leku batera begiratzea eta barre egitea aukera bat da. Jende askok egiten du hori, zoritxarrez. Eskuin muturrak gero eta lotsa gutxiago du. Batzuei, ero garbiak izan arren, jendeak botoa ematen die. Motozerra eskuan eta izugarriko jendetza baten aurrean, zerbitzu publikoekin bukatuko dutela eta gorriak ikusteko askatasuna ekarriko dutela aldarrikatzen dute, eta denak txaloka hasten dira, eta hautatzen dute, eta onartzen dute pobreak alferrak direla eta ez badute ezer ere, merezi ez dutelako da.

Haiek etxe batean gozo-gozo bizi diren bitartean, txalotzen dute beste batzuei herria kentzea eta basamortura bizitzera kondenatzea. Pozik bizi dira besteen dramaz barre eginez. Topa egiten dute, iji eta aja, aldamenekoaren etxea suntsitzen duten bitartean.



Castillo Suarez idazlea. ELKAR

'Permanencia' liburua kaleratu du Suarezek

Galegoz, katalanez eta frantsesez argitaratu ondoren, 'Irautera' poema liburuaren gaztelaniazko bertsioa aurkeztu du idazle altsasuarrak. Fernando Rey izan da itzultzailea, eta lan bat ongi idatzia dagoenean itzultzea "errazago" dela esan du

ALTSASU

2019an Castillo Suarez idazle altsasuarrak *Irautera* poemaliburuaren aurkeztu zuen. Poemen arteko lotura zuhaitzek egiten dute eta paisai sentimentala Altsasuko basoetan kokatu zuen. Irauteraren ideiarengatik hitz egiten du. Bost urte beranduago, apirilaren hasieran idazleak bere lehenengo gaztelaniazko poemarioa aurkeztu zuen: *Permanencia*. *Irautera* liburuaren itzulpena. Fernando Reyk egin du itzulpena, eta aurretik itzulita bazegoen ere, argitaratzea falta zen. Editorea Miguel Angel Arcas izan da.

Idazleak aurkezpenean esan zuen bezala, Irauterak landareez eta botanikaz hitz egiten duela

dirudi, baina gero beste gauza batzuei buruz hitz egiten du"; bakardadea, gizakien arteko harremana eta bizitzari aurre egiteko moduez.

'Irautera'

Irautera izenburuak hitz joko bat da eta irautea eta iratzea hitzak elkartu zituen, eta bizitzan aurki daitezkeen arazoaren aurrean nola irauten esan nahi du. Angel Erro idazleak idatzitako poema batean oinarritu zen; poema horretan esaten zuen askotan itsasoari buruz eta itsas bizitzari buruz hitz egiten dutela, "egitan horri buruz ideiarik ez dugunean". Euskarazko liburuan bezala, *Permanencia*-n ere iratze

bat agertzen da azalean, lanak landareekin harremana duelako: landare primitibo bat da, lehendabizikoa ateratzen eta azkeneko joaten dena. "Karea behar da kentzeko; ez du loratzen eta esporea bidez ugaltzen dira".

Liburuak lau bloketan bananduta dago, eta bloke bakoitzean hamabost poema daude. Fernando Rey *Permanencia* liburuaren itzultzaileak aurkezpenean esan zuen ongi idatzita dagoen lan bat "errazago" itzultzen dela, eta Suarezekin lan egitea asko gustatu zaiola.

Gaztelaniazko *Permanencia* argitaratu aurretik, galegoz, katalanez eta frantsesezko bertsioak kaleratu zituzten.



UTZITAKOA

Haize Berriak & Milakolore

Altsasuko Alde Zaharreko festetako egitaraua ixten Haize Berria Bandak 'Kolare haizean' kontzertu berezia eman zuen, lortia zabalgunean, Milakolore elkarteak kideekin. David Sanchez bandako zuzendaria izan zen, eta koordinazio lanetan Kruz Mari Martinez musikaria izan zen. Besteak beste, elkarteak kideek perkusioa instrumentuak jo zituzten.

Olatzagutiko festetako kartel lehiaketa martxan

Ekainaren 17ra arte aurkez daitezke Olatzagutiko Udalaren festak iragartzeko kartel lehiaketara lanak

OLATZAGUTIA

Uztailaren 25etik 28ra ospatuko dituzten Santa Ana festak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa martxan jarri du Olatzagutiko Udalak. Aurkeztutako irudiek Olatzagutiko festekin zerikusia izan

behar dute, eta derrigorrez *Santa Ana 2024. Olatzi / Uztailaren 25etik 28ra / Del 25 al 28 de julio* testua eraman behar du. Lehiaketan hiru maila daude: 11 urte bitartera arte, 12 eta 14 urte bitartekoak eta 15 urtetik gorakoak

maila. Lanak aurkezteko epea ekainaren 17an 14:00etan amaituko da, eta plika sistema erabiliko da. Kategoria bakoitzean kartel irabazlea aukeratzeko bozketak egingo da ekainaren 21ean, kultur etxean. 16 urtetik gorako errolatutako olaztiarrek parte har dezakete.

Sariei dagokionez, mailaren arabera izanen dira, 75 euro, 150 euro eta 200 euro. Lehiaketaren oinarri guztiak Olatzagutiko Udalean edo udalaren webgunean kontsulta daitezke.



Ipe Lizarraga eta Mintxo Astiz Aixita IV. Bertso Sariketaren kartelarekin.

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Ipe Lizarraga Pikuxarreko kidea eta Mintxo Astiz bertsolaria Aixita Bertso Sariketaren sustatzaileak izan ziren. Laugarren edizioa izango da aurten. "Bertsozale elkarteko bilera batetik sortu zen. Zuzendaritza taldean nago, eta bertan aipatu zen Nafarroan ez zegoela gazte sariketa bat non Euskal Herri osoko bertsolariak hartzen dituen", azaldu du Astizek. "Agian" Nafarroan egin zitekeela pentsatu, eta Lizarragarekin hitz egin zuen. Aurrera egin zuten. IV. Aixita Bertso Sariketa maiatzaren 18an, larunbata, 17:30ean, izanen da, Irurtzongo kultur etxean; sarrera librea da.

Euskal Herri osoko bertsolariak eta gazteak dira sariketaren irizpide nagusiak, "baina beste puntutxo bat eman nahi genion; hain gazteak ez izatea", gaineratu du Lizarragak. "Bertsolaritzan badago zirkuitu bat, gazte sariketarik direla; behin gazte sariketarik kanpo gelditzen zarenean, txapelketak daude, baina bestela hutsune bat dago". 22 urtetatik aurrera sariketa aukera gutxi dituzte bertsolari gazteek. Astiz: "Eskolartekoak 18 urtera arte izaten dira, eta gero Iparralden Hermandorena Saria, Zarautzen Lizardi Saria, Gabirin Osinalde, Bizkaian Abra... Baina horiek 22 urtera arte dira, gutxi gorabehera". Nafarroako bertsolari gazteen egoera ikusita, jendea aritzen dela baina plaza gutxi dituztela

Bertsolari gazteen plaza

Aixita IV. Bertso Sariketa antolatu du Pikuxarrek maiatzaren 18an, larunbata; Euskal Herri osoko "maila handiko" sei bertsolari gazte parte hartuko dute. Txapelketaren helburuak, besteak beste, bertsolari gazteei aukerak ematea da

azaldu du Lizarragak. "Beraz, 30 urte bueltan daudenei aukera bat emateko sortu genuen sariketa ere".

Maila handia

Normalean adin tarte horretako bertsolariak "saio normalak" izaten dituztela aipatu du Astizek. "Tope-topean ez dagoen jendea da, txapelketatik eta hainbeste deitzen ez dietenak. Nahiz eta oso-osonak izan". Aurtengo Aixita Bertso Sariketara, esaterako, Gipuzkoako txapelketako bere kanporaketan irabazi duen Mainer Arregi

AIXITA BERTSO SARIKETAN "HARROBIA ZAINDU" NAHI ZUTEN; GAZTEEI AUKERA BAT EMAN

Markuletak parte hartuko du, eta Paula Amilburu Izargari hirugarren sailkatu da Arabako txapelketan. "Nibeledko jendea da". Aukera gehiago behar dituzte: "bertso saio bat antolatzeke orduan Andoni Egaña, Unai Iturriaga eta Jon Maia deitzen dituzu eta erraza da plaza bat betetzea. Baina harrobia zaindu nahi genuen".

Lizarragak Saats Karasatorre etxarriarraren kasua kontatu du: "Pandemia zela eta abar bertsolarietatik hanka bat kanpo zuen, eta eskerrak eman zizkigun deitzeagatik, baietza eman zuenetik motibatu zelako, saio oso polita egin zuen, eta hortik eta urtebeterra Nafarroako Txapelketako finalean sartu zen". Horrelakoak ikusten dituztenean irizpideak "ongi" pentsatu zituztela uste du irurtzundarrak, "etxeko batekin balio izan digu".

"Etxeko jendeak" oso plaza gutxi dituztela gaineratu du.

Arregiarekin eta Amilbururekin batera, Patxi Castillo Graciarena eta Ainara Ieregi Aranburu nafarrak, Aitor Bizkarra Ruiz bizkaitarrak eta Aitor Servier Etcheguri iparraldetarrak osatzen dute Aixita IV. Bertso Sariketaren kartela.

Castillo eta Ieregi ongi ezagutzen dituzte Irurtzunen. Castillo berratarra da eta Nafarroako txapelketa askotan parte hartu izan du, "umorekoa, oso ongi aritzen da". Ieregi barañaindarra "oso bertsolari berezia" dela esan du Astizek:

IRURTZUNEN BERTSO SAIO ASKO ANTOLATZEN DITUZTE; "DEIGARRIA ETA EREDUGARRIA DA"

"Askotan ibiltzen naiz berarekin kantatzen, denetara apuntatzen da, eta beste batzuk etxean lan-keta egiten dute, baina Ainarak ez. Ainara den bezalakoa da". Bizkarra "gaur eguneko puntako bertsolaria da". Bizkaieraz egiteko hautua egin zuen. "Maila handikoa". Arregi ere "sekulako bertsolaria" dela esan dute Aixitako antolatzaileek, eta Servier ere "fin" ibiltzen dela gaineratu dute. "Iparraldeko txapelketako finaletik gertu ibili zen". Gertutik ezagutzeko eta entzuteko gogoia dute.

Astizek azaldu duenez, Euskal Herri mailako "arazo" bat dago emakumeak bilatzeko orduan "kostatzen" zaiela: "Ibili ibiltzen dira, eta oso onak dira, baina iristen da momentu bat 22 urterekin edo pixka bat lehenago, non bertso eskoletan hamar neska eta bi mutikoez egiten dute bakarrik aurrera, nahiz eta agian okerxeago ibili". Aixitan herrialde eta genero parekotasuna lortu nahi dute ere.

"Etortzen diren bertsolariak aurreko urtekoekin hitz egin dute dagoeneko, eta gogotsu etortzen dira. Lehenengo urtetan sorpresa hartzen zuten sariketa formatua zela ikusten zutenean", azaldu du Lizarragak. Antolakuntzatik ongi "zaintzen" dituzte eta opariak ere politak direla gaineratu du. "Gutxienez, oso eskertuak joan dira edo horrela helarazi digute". Batzuk irabaztera joango dira eta besteek entrenamendu bat bezala ikusko dute.

Bertsolaritza

Irurtzongo bertso eszenari dago-kionez, Pikuxarren Joana Zigan-daren eskutik bertso eskola "xume bat" dago, eta herri mailan eta Pikuxarren "konkretuki" urtean zehar hainbat saio antolatzen dituzte. "Presentzia izatea gustatzen zaigu", esan du Lizarragak. Eguberritan urteak daramatzate Barañaingo eta Larraingo bertso eskolekin desafia antolatzen, festetan bertso poteoak, bertso afariak... "Garrantzitsua da euskara plazan egotea, herrian". "Pozgarria" dela gaineratu du Astizek: "Irurtzun erdigunea bai, baina erdalgunea ere izan da. Eta ikustea inguruko herritan baino saio gehiago egiten direla, pozgarria da. Etxarrin saio pare bat egiten dituzte. Altsasun batere". Irurtzunen bai. "Deigarria eta eredugarria ere bada".

"Konturatu naiz hau gustuko dudala"

Ander Villalobos Hernaz altsasuarrak Sakana Lanbide Heziketa institutuan ikasten du, eta Navarraskills bere espezialitateko proba irabazi ondoren, Madrilen jokaturako Lanbide Heziketako olinpiadetan, SpainSkillsen, parte hartu zuen

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zer ikasten ari zara?

Altsasuko Sakana LH institutuan Mekatronika industrialia ikasten ari naiz. Aurten nire bigarren ikasturtea da; aurten bukatzen dut. Goi mailako zikloa da, eta aurretik batxilergo teknologikoa egin nuen.

2 Zergatik aukeratu zenuen ikasketak hau?

Gustatzen zitzaidan edo ez probatu nahi nuelako aukeratu nuen. Ingeniaritza bat egin aurretik probatu nahi nuen.

3 Zer ikasten duzue?

Pixka bat denetarik ikasten dugu. Lan mundura bideratutako gradu bat da, eta denetatik egiten da: pneumatika, hidraulika, elektrikoa...

4 LHko olinpiadetan parte hartu duzu. Zer dira olinpiada hauek?

Pixka bat errebotez joan nintzen. Jose Manuel Marin nire irakasleak Nafarroako probara joateko esan zidan, eta irabazi nuen, eta gero Madrilerara joan ginen biok. Bi probetan ia-ia berdina egiten da. Nire partearen diseinu mekanikoa ordenagailuaren bidez

egitea, eta hiru proba ziren. Proba horietan makina desberdinak egin behar ziren.

5 Zenbat egun egon zineten Madrilen?

Aste oso bat egon ginen, apirila hasieran. Lehenengo egunean inaugurazio ekitaldia izan zen, eta beste hiru egunak probenak. Azken egunean sari banaketa izan zen. Lehenengo hiru sailkatuak esan zituzten bakarrik.

6 Nolakoak ziren proba egunak? Zehazki zer egin behar izan zenuen?

Egun bakoitzean proba desberdin bat zen. Goizeko bederatzietan hasten zen proba, eta ordu erdi batean azaltzen ziguten zer pieza egin behar genuen eta dena. Zazpi edo zortzi ordutan bete behar genuen. Lehenengo egunean orga jasotzaile bat egin behar genuen zerotik. Planoen bitartez pieza batzuk egin behar genituen, eta beste pieza batzuk beraiek ematen zizkiguten. Gero muntatzeko beraiek emandakoarekin eta guk egindakoarekin osatu behar genuen. Bigarrenegun bizikleta elektriko baten motarra sortu behar izan genuen, pedalekin eta guztiarekin. Mo-

torraren barrualdea ia osoa betetzea. Pieza batzuk ematen zizkiguten eta beste batzuk guk egin behar genituen. Hirugarrenean pieza bat ematen ziguten, pixka bat txikia zena, eta neurriak eta abar hartu behar genituen, eta planoen bitartez pieza hori egin.

7 Zer nolako esperientzia izan da?

Oso pozgarria izan zen. Jende berria ezagutzen duzu, eta konturatu naiz hau gustuko dudala eta hau egin nahi dudala. Gainera, hiru proba horiek hiru egunetan egitea oso ongi egon da. Ez nuen espero eta espektatibarik gabe joan nintzen, oso esperientzia ona izan da. Esperientzia berri bat izan da.

8 Aurretik prestatu zinen?

Bai; denbora gutxi izan dut, baina bai. Urte bukaeran jakin nuen irabazi nuela, eta hiru hilabete inguru izan ditut prestatzeko. Nafarroako ez nintzen prestatu, klasean egindakoarekin. Esperientzia bizitzeko joan nintzen.

9 Ikasketak egin aurretik, horrela izatea espero zenuen?



Ander Villalobos LHko olinpiadetara joan den altsasuarra.

Ez nuen espero. Bigarren ikasturtean hasi gara gauza hauek ikusten. Lehenengoan ordenagailuko programa ikusten eta erabiltzen hasi ginen, eta aurten gehiago garatu dugu eta gauza gehiago egin ditugu.

10 Enpresa batean praktikak egiten ari zara orain, ezta?
Iradi enpresan nago, eta diseinu mekanikoa egiten ari naiz.

11 Eta gero, zer?
Ingeniaritza mekanikoa egin nahi dut.

DISEINU ON BATEK BIZIBERRITZEN ZAITU

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk

619 821 436
info@komunikazioa.eus
www.komunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu

